**donostiakultura.com**
San Sebastián, ciudad de la cultura

# 2010 Memoria




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

# Aurkibidea


3 **Donostia Kultura**
Erregina Erregeordearen kalea, 8
Tel.: 943 481150 Fax: 943 483900

8 **Komunikazioa eta Irudia**
Erregina Erregeordearen kalea, 8
Tel.: 943 481161 Fax: 943 481969

**EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK**

10 **Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinar Errepublika, 2
Tel.: 943 481160 Fax: 943 481969

12 **San Telmo Museoa**
Zuloaga Enparantza, 1
Tel.: 943 481580 Fax: 943 481581

15 **Antzoki Zaharra**
Argentinar Errepublika, 2
Tel.: 943 481160 Fax: 943 481969

16 **Kultur Etxeak**
Konstituzio Plaza, 1
Tel.: 943 481159 Fax: 943 481190

18 **Aiete Kultur Etxea**
Aiete pasealekua, 63
Tel.: 943 481920 Fax: 943 481993

19 **Casares - Tomasene Kultur Etxea**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 Fax: 943 354046

20 **Larratxo Kultur Etxea**
Larratxo pasealekua, 55 (Altza)
Tel.: 943 396494 Fax: 943 354046

21 **Egia Kultur Etxea**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 Fax: 943 287219

22 **Ernest Lluch Kultur Etxea**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919 Fax: 943 481866

23 **Larrotxene Kultur Etxea**
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 Fax: 943 292746

24 **Intxaurrondo Berri Kultur Etxea**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 Fax: 943 275241

25 **Loiola Kultur Etxea**
Aralar, 17
Tel.: 943 454605 Fax: 943 473498

26 **Lugaritz Kultur Etxea**
Heriz, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 Fax: 943 310782

27 **Okendo Kultur Etxea**
Nafarroa Etorbidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 Fax: 943 290721

28 **Liburutegiak**
Konstituzio Plaza, 1
Tel.: 943 481749 Fax: 943 431895
**Unitate Tekniko Zentrala**
Konstituzio Plaza, 1
Tel.: 943 481162 Fax: 943 431895
**Liburutegi Nagusia**
Alderdi Eder
Tel.: 943 481488 Fax: 943 481490
**Liburutegi Nagusia - Haur Saila**
Fermín Calbetón, 25
Tel.: 943 481999 Fax: 943 481195

**PROGRAMAZIOA**

35 **Musika**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

36 **Antzerkia eta Dantza**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 483860 Fax: 943 481969

37 **Zinea eta Bideoa**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

38 **Festak**
Konstituzio plaza, 1
Tel.: 943 481168 Fax: 943 481177

**JAIALDIAK**

44 **Heineken Jazzaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

45 **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

46 **Giza Eskubideen Zinemaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

47 **dFERIA**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 483860 Fax: 943 481969

49 **Literaktum**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481488 Fax: 943 481490

50 **San Miguel Donostikluba**
Konstituzio Plaza, 1
Tel.: 943 481159 Fax: 943 481190

50 **Amstel Surfilm Festibal**
Erregina Erregeordearen kalea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

# Donostia Kultura

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**
Lehendakaria: Odón Elorza
Lehendakariordea: Denis Itxaso

Bokalak:
PSE-EE
Odón Elorza
Denis Itxaso
Mª Jesús Muñoz
Marisol Garmendia
Maravillas Dafauces

PP
José Luis Arrue
Mª José Usandizaga

EAJ-PNV
Mertxe Garmendia

EB-B-A
Juan José Pérez

EA
Ricardo Burutaran

**ZUZENDARITZA TALDEA**

| | |
|---|---|
| Zuzendari-gerentea: | Antton Azpitarte |
| Administrazioa eta Kudeaketa: | Rebeka Gallastegi |
| Komunikazioa eta Irudia: | Jaione Askasibar |
| Ekoizpena: | José Ignacio Abanda |
| San Telmo Museoa: | Susana Soto |
| Zinea: | Josemi Beltrán |
| Musika: | Miguel Martín |
| Antzerkia eta Dantza: | Norka Chiapuso |
| Festak: | Mª Jesús Torres |
| Liburutegiak: | Arantza Urkia |
| Kultur Etxeak: | Patxi Presa |



**BALANTZE EKONOMIKOA**

| **PROGRAMA** | **GASTUAK** | **SARRERAK** |
|---|---:|---:|
| Administrazioa eta Kudeaketa | 3.909.669,00 | 2.312.323,00 |
| Komunikazioa eta Irudia | 1.061.333,00 | 358.179,00 |
| Liburutegiak | 1.779.222,00 | 85.179,00 |
| Kultur Etxeak | 5.838.924,00 | 482.485,00 |
| San Telmo Museoa | 2.005.675,00 | 94.292,00 |
| Victoria Eugenia Antzokia | 1.690.282,00 | 487.304,00 |
| Antzoki Zaharra | 542.885,00 | 40.407,00 |
| Antzerkia eta Dantza | 2.240.766,47 | 1.924.538,00 |
| Dferia | 177.963,53 | 152.105,00 |
| Zinea | 219.331,57 | 165.718,00 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea | 395.245,43 | 258.335,00 |
| Festak | 2.943.161,00 | 750.144,00 |
| Musika | 771.341,00 | 422.351,00 |
| Jazzaldia | 1.246.855,00 | 1.149.301,00 |
| Gastu eta sarrera arrunten exekuzioa | 24.822.654,00 | 8.682.661,00 |
| Udalaren ekarpena gastu arruntetarako | | 16.139.993,00 |
| **Guztira** | **24.822.654,00** | **24.822.654,00** |

**EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK**
**442.238.69 euro, kultur eta jai-erakundeen artean banatuta**

# Donostia Kultura

## Donostiako kultur etxeek eta liburutegiek milioitik gora erabiltzaile dituzte












Donostia Kultura, Donostiako Udalaren kultur departamentu den aldetik, hiriko kultur eta jai-eskaintzaren eragile nagusia da. Kultura herritarrei eta herritarrak kulturara hurbiltzeko eginkizuna du, bai kultur zerbitzu eta kulturguneen bitartez, bai programazio askotariko eta iraunkorraren bitartez (udako jaialdi handien osagarri). Parametro horien arabera, iazko urtearen balantzea oso ona da; honako hauek nabarmendu daitezke: liburutegi eta kultur etxeetako erabiltzaile-kopuru handiak, kultur eta jai-ikuskizunetako ikus-entzuleen kopuru handiak, San Telmo Museoko lanen amaiera, eta Aiete Kultur Etxearen irekiera, berriki.

Azkenekotik hasiz, Eguberri aurretxoan inauguratu genuen **Aiete Kultur Etxea**; hartara, **10 kultur etxek** osatutako sarea du **Donostiak**, eta laster Intxaurrondo Berrikoa irekiko da. Datu biribil bat emate aldera, aurreratu dezakegu milioitik gora izan direla 2010ean Donostiako kultur etxeek eta liburutegiek izan dituzten erabiltzaileak.

Donostia Kultura "birpentsatzen" ari da kultur etxeen sarea, estrategia-erronkak eta lan-ildoak zehazteko xedez. Batzuk, 2010.ean bertan jarri dira abian, hala nola San Miguel Donostikluba zehar-programa: erreferentziazko 12 klub eta gune biltzen ditu, eta 4.500 lagun ekarri ditu kontzertuetara. Literaturzaleen hitzordu ospetsu den Literaktum-en azken edizioa, eta Poltsiko Antzerkiaren jaialdia-1.000 ikus-entzule bildu ditu tamaina txikiko 21 emanalditan: horiexek izan dira Donostia **Kulturaren B aldea**ren erakusgarri onena, hau da, hiriko kultur jarduerak bestelako begiz ikustearena. Begiradez ari garenez, azpimarratzekoa da Hiri Memoria ekimena, 2010ean batez ere Amara eta Loiola-Martuteneko auzoetan garatu dena.

**Kultur etxeek**, bestalde, indartu egin dute hala kokatuta dauden auzoarekiko hurbiltasuna nola kultur eremu jakin batean duten espezializazioa, zeinari esker donostiarrak batera edo bestera jotzen baitute, eskaintzaren arabera. Alde horretatik, **arrakasta handiko zenbait jarduera** nabarmenduko genituzke, hala nola Egia Kultur Etxeko Gazteszenak musika gazteari egin dion lekua; 8.828 entzule bildu ditu 28 kontzertutan. Beste jarduera aipagarri bat, Larrotxene Kultur Etxeak ikus-entzunezkoetan eskaintzen duen prestakuntza: **Jorge Gil, Michel Gaztambide, Jose Mari Goenaga, Jon Garaño, Juantxo Sardón, Angel Aldarondo, Izibene Oñederra** eta **Aritz Morenok** eman dituzte ikastaroak. Ernest Lluch Kultur Etxeko autore-ikastaroek ere oso harrera ona izan dute; **Luisa Etxenike** eta **Jesus Torquemada** izan dira emaile, besteak beste, eta aurten eztabaida, elkarrizketa eta pentsamenduarekin zerikusia duten jardueretan hasi dira espezializatzen. Lugaritz Kultur Etxean, berriz, Arte Eszeniko abangoardistenak izan dira, eta 8.958 ikus-entzule bildu dituzte 57 emanalditan. Azkenik, aipa dezagun Okendo Kultur Etxeko erakusketa-eskaintza: Ouka Leele, Murakami eta beste artista batzuen lanek 30.000 donostiar erakarri dituzte hango aretoetara.

Laburbilduz, sareak 2.150 jarduera kudeatu ditu guztira 2010ean; eta jarduerok, zerbitzuekin batera, 948.482 erabil-

tzaile edo bisitari erakarri dituzte. Azpimarratzekoa, halaber, 5.373 lagunek parte hartu izana antolatu diren 426 ikastaroetako batean.

Nolanahi ere, kopuru handiok **Udal Liburutegien Sarear**en arrakasta handiari zor zaizkio hein handi batean. 2009. urtearekin alderatuta, % 4 hazi da erabilera: 2010ean, 1.047.379 bisita zenbatu dira Sareak kudeatutako 16 guneetara. Horrek esan nahi du batez beste 3.503 erabiltzaile izan direla eguneko Donostiako liburutegietan. 522.388 mailegu kudeatu dira (329.406, liburuak; 132.169, bideoak; 37.745, CDak…), hau da, 2,8 mailegu biztanleko.  2010ean, gainera, 674 jarduera izan ziren literaturaren inguruan, 13.394 lagun bildu zituztenak.

**Programazioari dagokionez**, 204.962 ikus-entzule izan ditu Donostia Kulturak 2010ean (horiei, doako ikuskizunetako 87.768ak gehitu behar litzaizkieke), eta diru-sarrera, berriz, 2.523.324 euro-koa (BEZ barne).

**Musikan**, 40.327 lagun izan dira Donostia Kulturak Antzoki Zaharrean, kultur etxeetan eta Victoria Eugenian programaturiko kontzertuetan; gainera, beste 16.183 lagunek hartu dute parte Kursaal Fundazioak beste musika batzuez egindako programazioan; 56.510, guztira.

Classic zikloa, iaz Asociación Cultura Musical-ekin batera hasia, finkotu egin da aurten, eta musika klasikoko programazio egonkorra eta kalitatezkoa eman dio Victoria Eugeniari; aurten, gainera, Antzerki eta Dantza klasikoko emanaldiak ere izan dira.

Pop-Rock Lehiaketari jarraipena emanez, Tokiko Musika Erakustaldi berriak 15 talde elkartu ditu.

Eta **Patti Smith, George Benson** eta **Elvis Costello** dira, ziur asko, Heineken Jazzaldiaren azken ediziotik luzaroen gogoratuko diren izenak. 113.507 lagun izan dira 84 emanaldietan.

Antzerkiari dagokionez, **Muñoz Seca, Juan Carlos Rubio, Santiago Moncada, Yazmina Reza** edo **Roger Rueff** autoreen testuek,  **Gabriel Olivares, Tricile, Manuel Galiana, Juan Carlos Rubio** edo **Tamzin Towseden** mailako zuzendarien esanetara, eta 100 aktore baino gehiagok jokaturik -besteak beste, **Javier Veiga, Enrique San Francisco, Toni Cantó, Paco Valladares, Juanjo Artero, Pablo Carbonell, Angel Pardo, José Luis Gil, Juncal Rivero, Arantxa del Sol, Anabel Alonso, Marta Berenguer, Mirian Díaz-Aroca, María Luisa Merlo**-, argi asko adierazten dute zer-nolako eskaintza izan zen udan Antzoki Zaharrean; 15.952 ikus-entzule izan ziren udan Antzoki horretan; 51.606, 2010. urtea osorik hartuta.

Izan ere, urtearen beste sasoietan, antzoki horrek euskarazko antzerkia, euskal konpainiak eta antzerki eta zineko jaialdi txikiak hartzen ditu, guztiei ere bere berezitasuna txertatuz. Alde horretatik, Antzoki Zaharretik pasatu dira, besteak beste, No me hagas daño, **Fernando Bernuések** zuzenduta, *Y sin embargo te quiero*, **Ángeles Martín** eta **Alejandra Torray** aktoreekin, eta *Ezker-eskuma eta Xabinaitor* euskarazko ikuskizunak.











# Donostia Kultura

Ikus-entzuleria sortzeko helburuz, Antzerki Kluba dinamizatu da gaikako zikloak antolatzeko ekimenari esker, artisten eta ikus-entzuleen arteko topalekuentzako bide berriak irekitze aldera. Lehen edizioan, indarkeria matxistaren kontrako zenbait emanaldi bildu dira "Otras rosas rojas" titulupean. Nabarmentzekoa, halaber, ikus-entzule berriak sortzeari dagokionez, Eskolatik Antzerkira programaren arrakasta, 4.539 haur ekarri baitzituen antzerkira 2010ean (aurreko urtean baino % 23 gehiago).

Victoria Eugeniaren agertokian, berriz, eszenako artistarik puntakoenak izan dira -**Héctor Alterio, José Sacristán, José María Pou, Amparo Larrañaga, Ara Malikian** eta **Magüi Mira**-, bai eta azken urteotako fenomeno aipagarri bat ere: ***Mamma Mía***, ***Fiebre de Sábado Noche*** eta ***Chicago*** musikalak; eta 99.774 ikus-entzule erakarri dituzte.

**Dantza**n, urtea egundokoa izan da, Espainiako eta nazioarteko lehen mailako koreografoak etorri baitzaizkigu: **Juan Carlos Santamaría, Corpo Danza** (Brasil), Laussane-ko **Béjart Ballet** eta Biarritzeko **Malandain Ballet**, nabarmentzekoak, bai eta Donostia-Biarritzeko **Mugaz Haraindiko Zentro Koreografikoa** ere.

**dFERIA 2010**, gogoeta-prozesua aurrera doan bitartean, euskal antzerki-dantzen topaleku bihurtu da, eta 15 ikuskizun, 172 profesional eta 4.548 ikus-entzule izan dira bertan. Etapa berri batean sartzeaz gainera, 2011. urteari begira, eta Euskadiko Arte Eszenikoen sektorea inplikatu ondoren, dFERIAk bertan sustatu diren ikuskizunen segimendua egin du, eta hauxe izan da emaitza: feriaren ondorengo lehen sei hilabeteetan milioi bat euro bildu dute, eta horri hartu diren beste konpromisoak gehitu behar zaizkio.

Zine-programazioa -oraindik ere Jose Luis Rebordinosek sinatzen du- programazio egonkorrean zentratu da: Nosferatu (***70eko trhiller estatubatuarra eta François Truffaut***), gure ohiko zinemaldiak (Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astea, 33.357 ikuslerekin; Giza Eskubideen VII. Zinemaldia, 22.211 ikusle izan dituena, eta Goran Paskaljevic zinegile serbiarra edizio honetako Giza Eskubideen Sariaren irabazle; eta Amstel Surfilm Festibal delakoa, zortzigarren edizioan), eta Tabakalerarekiko ohiko lankidetza, harekin programatzen baitira Biarritzeko FIPAko filmen hautaketa eta Clermont-Ferrandeko LABO saila.

**San Telmo Museo**az, 2011ko Memorian hitz egingo dugu luze.
Joan den urteari buruz, datu hau: dagoeneko **26.669 artelan** eta objektu ditu inbentariatuta San Telmo Museoak, eta nabarmentzekoa da **526 pieza** berri sartu direla 2010ean, horietatik 70 museoak berak erosiak, berriro irekiko denerako bilduma osatuagoa edukitzeko. Hona hemen urtealdian egin diren lan batzuk: froga dokumentaletan jasotako dokumentazio historikoaren eta argazkien bildumen digitalizazioa, San Telmoko liburutegiaren berrantolaketa -**11.000 titulu** ditu gaur egun-, eta Kapitulu Gelako arkosolioan egindako zaharberritze-lan handia. Aurkikuntza? Pedro Echeverría adituak jarri zuen argitan Elizako gangetan aurkitutako margolanen balioa. Halaxe jakin genuen Juan Idiakez sustatzaileak (Felipe II.aren aholkulari eragileenetako batek), Gorteko estetika -hots, Eskorialekoa- imitatu nahian, Genovako eskolako artistak ekarri zituela Gipuzkoan garai hartan ziren arte-lantegietara; besteak beste, Pedro Castellano eta Giovanni Battista Castello "Il Bergamasco".

Muesotik, nabarmenena, nolanahi ere, eraberritze arkitektoniko eta museografikoan egindako lana izan da, 2011n museoa berriro irekitzeari begira. Enrique Sobejano eta Fuensanta Nieto arkitektoek 2010ean amaitutako egitasmo arkitektoniko bikainari esker, museoak are gehiago aberastu du ondare berez baliosa. Ondoren, Arción enpresak (Lunatus-en ondorengoa) egitasmo museografikoa jarri du martxan. Gainera, hasita dago eraikinaren fatxadako horma erdi-landarezkoa, Agustina Otero eta Leopoldo Ferrán-en eskutik.

Erakusketei dagokienez, nabarmentzekoa ***Donostiari begira*** erakusketak -Urgulleko Historiaren Etxean, museoak berak kudeatua- **102.395 bisitari** izan dituela, bai eta beste 2.242 haur ere, hartu dituen 102 ikasle taldeetakoak. Nabarmentzekoa, halaber, Donostiako Kulturako beste atalek **56 erakusketa** antolatu dituztela, eta **84.180 bisitari** izan dituztela.

Memoriak berekin ohi duen zenbaki-saltsa honetan, ez dago esan beharrik **Festei** dagokien atalean sartzen dela Donostia Kultura harreman estuagoan herritarrekin. Neurketa fidagarriak egitea zaila izan arren, oso datu esanguratsuak emateko moduan gara. Ordena kronologikoan:

**Erregeak**
12 kolektibo, 500 partaide baino gehiago, 4 karroza, 4 fanfare, 1.500 kg gozoki.
**Haur danborrada**
2.000 haur danborrada aurreko festan, 45 ikastetxe, 52 konpainia, 5.256 haur (ikus-entzuleak: 35.000-40.000 lagun inguru).
**Helduen danborrada**
107 danborrada, 12.611 parte-hartzailerekin. La Oreja de Van Gogh izan zen Urrezko Danborra.
**Kaldereroak**
18 tribu, 346 parte-hartzaile, 19 konpartsa
**Artzai eta Inudeak**
4 auzo, 4 konpartsa
**Ihauteriak**
26 konpartsa, 5.300 parte-hartzaile, 15 fanfare.
**Aste Nagusia**
9 agertoki, 327 jarduera (ikus-entzuleak: 913.213 lagun, gutxi gorabehera).
Su Festen Nazioarteko 47. Lehiaketa Jaialdia
7 piroteknia (ikusleak: 635.000 lagun, gutxi gorabehera)
**Euskal Jaiak**
31 jarduera
**Donostiako Estropadak – Kontxako Bandera**
24 traineru parte-hartzaile (30.000 ikusle eguneko)
**Santo Tomas Feria**
207 postu (jendea: 45.000 lagun, gutxi gorabehera)
**Olentzero**
10 kolektibo, 200 kg gozoki eta 50 kg ikatz.

Jendea oso sakabanatuta dagoen edo hiri osoak parte hartzen duen kasuetan -Santo Tomas egunean edo San Sebastian

eguneko danborraden kalejiretan- jendearen eta ikus-entzuleen neurketa zehatzik egin ez bada ere, 2010ean lortu diren kopuruak erreferentzia gisa balio digute: 1.800.000 herritarrek parte hartu dute Estropadetan, Su Festetan eta Haur Danborradan.

Gainera, **Donostia Kulturaren** kudeaketari buruzko zenbait alderdi orokor nabarmenduko nituzke. Ekonomia alderdian, aurreratu nahi nuke aurrekontu-emaitza orekatua aurkeztuko dela. Behin betiko datuak aurki aurkeztuko zaizkio Administrazio Kontseiluari, hala gastu estrukturalak murrizteko nola diru-sarrera berriak bilatzeko egin diren ahaleginei esker (1.300.000eurotan-tan gainditzea lortu dugu diru-sarreren aurreikuspena), programazio handiagoari ekin ahal izan diogula, aurrekontu orekatua 24,8 milioitan utziz.



**Erakundeak komunikazio aldetik izan dituen erronkei** dagokienez, 2010 irudi berria ezarri den urtea izan da, 2009an estrenatu zena, bi helbururekin:
1- Irudi horren bidez Donostia Kulturak aurrean duen erronka gogorarazi, hots, komunikazio-estrategia plataforma digital berri batean biltzea (hurrengo pausoa, aurki, herritarrei irekita egongo den kultur atari bat aurkeztea izango da).
2- Marko orokor gisa balio izatea Donostiako udal kultur sarea osatzen duten 12 markentzat; horrez gainera, kultur ekimen publiko eta pribatuak jasotzea, hala nahi badute.



Aurreko urteetan azpimarratu dugunez, Donostia Kultura txartela da komunikazio-aktibo eraginkorrenetako bat -edo eraginkorrena-. 2010eko abenduaren 31n, **65.329 bazkide zituen Donostia Kulturak,** Kulturaren klub handi honetan sartu nahi izan zuten **beste 5.808 hiritarrei esker (% 85, donostiarrak)**. Biztanleriaren heren batek txartelak eskaintzen dituen zerbitzu eta abantaila onenez gozatu ahal izan du hala: deskontuak ikuskizun eta ikastaroetan, maileguak Donostiako liburutegietan, gonbidapenen zozketak, hileko kultur agenda etxeratzea eta abar. Abantaila horietako asko inguruko beste kultur eragile nagusietara (Aquariuma, Kutxagunea eta abar) eta jaialdietara (Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia eta abar) heda daitezke.



# Komunikazioa eta Irudia

Donostia Kultura da lehen eragilea Kulturak Donostiako komunikabideetan hartzen duen eremuan. Komunikazio-ahalegin gero eta handiagoari esker, hiria kanpokoen aitormena jasotzen ari da kultura-eskaintzan eta kalitatean ageri dituen parametro bikainengatik; udako jaialdi eta festa ezagunengatik ez ezik, baita urteko beste sasoietan egiten direnengatik ere. Neguko jaiak direla eta (San Sebastian, Santo Tomas, eta abar), ikuskizun eta jaialdiek programazio zabala dute hiriko bost gune eszenikoetan; baina nabarmentzekoa da, batez ere, hirian zehar sakabanatutako kultur etxe eta liburutegien sareek Kulturarako egiten duten sarbide-lana.  Eskaintza hori behar bezala hedarazteko, **200 prentsaurreko baino gehiago** egin dira, eta **5.300 agerraldi** izan dituzte komunikabide inprimatuetan, besteetan izan dituztenez gainera. **Gaika osatutako 217 dossierrak** ere erreferente argia dira.

**Datu batzuk:**

| | |
|---|---|
| Prentsaurrekoak | 235 |
| Literatur aurkezpenak | 50 |
| Programak | 300 (liburuxkak, gonbidapenak, kartelak) |
| Prentsa-oharrak | 237 |
| Prentsa idatziko iragarkiak | 400 |

**Donostia Kultura online**
Trantsizio urtea izan da 2010 hau, Donostia Kulturak internetten duen presentziari dagokionez; **gizarte-sareak** izan dira protagonista komunikazio-estrategian, zenbait blog ireki eta facebook, twiter, youtube, flickr, eta abarretan kanalak areagotu baitira.

**Donostia Kultura** 418.447 bisita
1.164.777 bisitaturiko orriak (+46,04%)
**Victoria Eugenia** 134.381 bisita
542.858 bisitaturiko orriak (-3,26%)
**San Telmo Museoa** 26.746 bisita
172.572 bisitaturiko orriak (+9,24%)
**Heineken Jazzaldia** 138.321 bisita
628.321 bisitaturiko orriak

2010. urtean, nolanahi ere, **Donostia Kultura** osoaren komunikazio-estrategia **sarera begira jarri da**: ikus-entzunezko postu bat sortu da, sinergia ugari, lan egiteko era berriak, eta, batik bat, hiritarrei begirako ariera.

**Irudi orokorra**
2009. urtean irudi berria ezarri ondoren, donostiakultura.com sendotu egin da 2010.ean, Donostia Kulturak kudeatzen duen guztiaren irudi orokor gisa ez ezik, baita hirian egiten diren kultura-ekimen publiko nahiz pribatu guztiak jaso eta haien bozgorailu-lana egiten duen atari gisa ere.
Urtealdi honetan irudi hori hainbat gunetan ezartzeari ekin zaio (Aiete K.E., Ernest Luch K.E., Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoa, eta abar).

**Argitalpenak**
Zine Unitateak honako liburu hauek argitaratu ditu Nosferatu zikloa dela eta: ***70eko thriller estatubatuarra*** eta ***François Truffaut: El deseo del cine***; bai eta Bestia en la pantalla: Aleister Crowley y el cine ere, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean. Gainera, Festen Unitatearen ekimenez, ***San Sebastián. Historia y anécdota de sus fiestas*** liburua argitaratu da.










# Donostia Kultura txartela

**DK, Gipuzkoako klubik handiena**
2010eko abenduaren 31n, **65.329** bazkide zituen erakundeak, Kulturaren klub handi honetan sartu nahi izan zuten beste 5.808 hiritarrei esker (% 85, donostiarrak); Gipuzkoako klubik handiena, bidenabar. Biztanleriaren heren batek Donostia Kulturako Komunikazio Ataletik kudeatzen den txartelak eskaintzen dituen zerbitzu eta abantaila onenez gozatu ahal izan du hala: deskontuak ikuskizun eta ikastaroetan, maileguak Donostiako liburutegietan, gonbidapenen zozketak, hileko kultur agenda etxeratzea eta abar. Abantaila horietako asko inguruko beste kultur eragile nagusietara (Aquariuma, Kutxagunea eta abar) eta jaialdietara (Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia eta abar) heda daitezke. 2010ean, gainera, zabaldu egin da fidelizazio-eremua, 15 urtetik gorako gazteak erakarri baitira, zenbait urtez haur liburutegien udal sarearekin lotura izan dutenetako batzuk. Hona hemen beste datu adierazgarri bat: Aiete K.E. berria ireki zenean, 2.000 txartel berri egin ziren lehen 15 egunetan, eta, horri esker, 3.574 mailegu, liburu eta ikus-entzunezkoetan, Aieteko auzotarrei.
2010ean, halaber, **inkesta** bat egin zen bazkideen artean, zertarako eta Donostia Kulturaren web-atari berria agertzearekin batera martxan jarriko ziren abantaila eta zerbitzu berrien diseinuari buruz herritarrek espero zutena jasotzeko; inkesta hartatik hasita, parte-hartze prozesua geldiezina izan da, ezinbesteko euskarria egitasmo berri horietarako.
Abenduan, eta bigarren urtez segidan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Bonoaren sustapena gehitu zitzaien Donostia Kulturaren eskaintzei, eta harrera ona izan zuen.







# Casares Irratiaren Tailerra

Casares Irratiak 24 ordu ematen ditu egunero FMko 107.4an. 2010ean, **7 ikastaro, 7 tailer** eta ezin konta ahala elkarrizketa egin zituen, batez ere kulturaren ingurukoak. Guztira, **134 ikasle** prestatu dira irrati horretan; irratia, bestalde, eraldaketa-prozesuan da, kultura-atari berriari lotuta.



# Webguneak


donostiakultura.com


victoriaeugenia.com


museosantelmo.com


heinekenjazzaldia.com


donostiakultura.com/bibliotecas.php

# Victoria Eugenia Antzokia

| | Ikuskizunak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| Zinema | 259 | 120 | 33.473 |
| Musika | 32 | 32 | 17.180 |
| Dantza | 8 | 11 | 5.868 |
| Lirikoa | 3 | 6 | 3.155 |
| Antzerkia | 18 | 58 | 26.339 |
| Musikala | 2 | 15 | 8.822 |
| Hainbat* | | 8 | 550 |
| **GUZTIRA** | **322** | **250** | **95.387** |
| **Victoria Eugenia (Club aretoa)** | | | |
| Zinema | | | |
| Antzerkia | 4 | 7 | 717 |
| Dantza | 7 | 8 | 758 |
| Musika | 20 | 20 | 2.219 |
| **GUZTIRA** | **31** | **35** | **3.694** |
| **GUZTIRA** | **353** | **285** | **99.081** |











Victoria Eugenia Antzokiak 2010ean izan duen **musika-programazioa** askotarikoa eta **nazioartekoa** izan da, eta hiriko beste programazio egonkor batzuen **osagarri**: Kursaal Fundazioa, San Miguel Donostikluba, Gazemaniak!...

2010. urteak **Classic zikloa** ezartzea ekarri du: bere iturriak mundu klasikoan bilatzen dituen programa bat -batik bat musikan, baina baita dantzan eta antzerkian ere-, bere lekuaren bila eta arreta eske zebiltzan ikus-entzule jakin batzuengana hurbiltzeko bidea eman duena; gutxienez, kontzertu bat edo jarduera eszeniko bat eskaini zaie hileko. **Eduardo Clausen** programatzailearen eskarmentuari eta ezagutzari esker, eta Donostiako kultura-giroan nabarmenenetakoa den instituzio bat **Asociación de Cultura Musica**- lankide izanik, programa distiratsua osatu da, agertu nahian diren bertako artistei begirakoa. Ikus-entzuleek gogo beroz erantzun dute, urte osoan bete baitute aretoa.

**Arte eszenikoei** dagokienez, aurreko urteetan baino hobea izan da ikus-entzuleen erantzuna, eta Victoria Eugeniak Gipuzkoako lehen agertokia izaten jarraitzen du bere proposamenen bizitasun, askotariko eta kalitatearengatik.

Musikalei dagokionez, berriz, Espainiako ekoizpenik onenak ekarri dira Donostiara; esate baterako, ***Mamma mia!, Fiebre de sábado noche*** eta ***Chicago.***

**Dantzan**, Espainian zein nazioartean lehen mailakoak diren artistak izan ditugu geure artean. Otsailean, **Juan Carlos Santamaríak**, 2008ko Dantzako Sari Nazionalak, bere azken sorkuntza-lana aurkeztu zigun: ***Polvo eres.*** Gainera, **Corpo** etorri zitzaigun, Brasildik; **Béjart Ballet** Laussanne ere bai, **Gil Roman** buru zuela, **Maurice Béjart** maisuaren ondare handiaren oinordeko; Donostian azken urteotan izan den koreografia-gertaerarik behinena izan da. Urrezko amaiera **Malandain Ballet** Biarritzek jarri zuen, **Thierry Malandain**ekin, zeina Frantziako Kultura Ministerioaren Ohorezko Ordena eta Biarritzeko Hiriaren Urrezko Domina jaso ondoren etorri baitzen Donostiara. Oraingo honetan, ***Romeo eta Julieta*** izan genuen gozagai, Shakespeareri egindako omenaldia, **Hector**

# Victoria Eugenia Antzokia

**Berlioz**en musikarekin. Beste urte batez, sendotuz joan da Malandain **Ballet Biarritz-Victoria Eugenia Antzokia Mugaz Haraindiko Zentro Koreografikoa**; aurrez aipatu ditugun konpainiei kudeaketa eta programazioa errazten die, dantzari gazteen koreografia-prestakuntza osatzen du eta dantza ezagutarazten die herritarrei; ez da ahaztekoa, noski, **Gipuzkoako Dantza** Profesionalen Elkarteak doan eskainitako lankidetza preziatua, hala  Zentro Koreografikoan nola dantzarekin zerikusia duten jarduera guztietan.

**Antzerkia**. Esan dezakegu urte hau emankorra izan dela antzerkian ere. Eszenako artistarik puntakoenak izan dira Victoria Eugenia Antzokian: **Héctor Alterio, José Sacristán, José María Pou, Amparo Larrañaga, Ara Malikian, Nuria González, Magüi Mira**, eta abar. Testu handiak gozatu ahal izan dituzte berriz ere ikus-entzuleek: **Heinrich von Kleisten** *La Marquesa de O*, **Magüi Mira** zuzendari zela; **Albert Camus**en *Calígula*, **Santiago Sánchez** zuzendari; **William Shakespeare**ren *Sueño de una noche de verano*, **Helena Pimenta**ren zuzendaritzapean. Arrakasta handiak izan ditugu, hala nola Arte, Ser o no ser, Faemino y Cansado, *Pagagnini*; azken hori, gure artera birritan etorritako ikuskizuna, bietan aretoa betez. Ustekabeak… *Voyageurs inmobiles*, **Philippe Genty**rena, hots, gaur egungo antzerkiko irudi-sortzaile handienetariko batena. **Vaivén Produccione**sek **Borja Ortiz de Gondra**ren testu bat estreinatu zuen, **Duda razonable**, oso ekoizpen ona, **Josep María Mestres** antzerki-zuzendari katalan ospetsuak zuzendua, kalitate handiko aktore talde batekin: **Marta Póveda, Marcial Álvarez, Mariano Venancio eta Ana Pimenta.**

Bukatzeko, nabarmentzekoak dira bi egitasmo, ilusio handia egin digutenak eta 2010ean indartsu sortu direnak. Antzokiko **Klubaren dinamizazioa**: dinamizazio jarraitu eta etenik gabea, antzerkirako eta dantzarako ere erabili baita Kluba, bide berrien bila artistek ikus-entzuleekin topo egin dezaten. **Gaikako zikloen antolamendua**: arte eszenikoen programazioari gizartean eta kultura-eremuan tamaina eta entzute handiagoa emateko xedez, gaikako ziklo zeharkako eta multidiziplinarrak antolatzeari ekin diogu Donostia Kulturaren gune guztietan. 2010ean, ***Otras rosas rojas*** izeneko zikloarekin hasi gara; arteak eta pentsamenduak indarkeria matxistaren kontrako borrokan eman dituztenei eskainitako zikloa.

Victoria Eugenia Antzokia **zinearentzako gune** ere izan da berriro ireki zenetik. Giza Eskubideen Zinemaldiko egoitza nagusia da, bai eta proiekzio-toki garrantzitsua ere Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astean. 2010. urtean ere hainbat jarduera programatu dira han, hala nola Kimuak 2009 film laburren programaren proiekzioa.











# San Telmo Museoa

## BISITARIAK

Azken urteotan bezala, memoria honetan **Urgulleko Historiaren Etxe**ko erakusketan izandako bisitaren datu globalak jaso dira; izan ere, San Telmo eraberrikuntzaren azkenetan da oraindik, eta itxita dago bisitarientzat.
Hala ere, kanpoan egin daitezkeen jarduerak egin direnez, jarduerotako partaideen datuak bitan banatzen dira: Urgulleko ***Donostiari begira*** erakusketaren erabiltzaileak, eta hirian egin diren kalejiretan parte hartu duten erabiltzaileak.

**Kalejira:**
**1.782 parte-hartzaile**
Taldeak: **129**
Guztira: 1.782
**Urgull:**
Bakarkakoak: 102.395
Taldeak: 102, 2.242 parte-hartzailerekin
Guztira: **104.637**

## URGULL

Berriz ere, **Motako Gazteluko erakusketa** erreferente bihurtu da hirian, guztira **104.637 bisitari** izan baititu guztira, datuen taulan ikus daitekeenez. Aurten, nabarmentzekoa da Cristina Enea Fundazioari egokitu zaiola Damen Bateriaн den gunearen eskaintzaz arduratzea, Fundazioarekiko lankidetza-hitzarmen bati esker. Liburutegien Udal Zerbitzuak kudeatu du aurten ere liburutegia; eta San Telmo Museoak, berriz, erakusketa, bai eta hiru jarduera-guneen koordinazioa ere Aste Santuan eta udan.

Aurten, **kanoien zaharberritzea** ikusi ahal izan da Napoleonen Bolborategitik hurbil; udako asteazken eta ostegunetan, jendaurrean egin da lana, eta **hobetu egin dira** instalakuntzetako **seinaleak**.

## BILDUMAK

Gaur egun, San Telmo Museoko **Bildumen Katalogoak 26.669 objektu** ditu inbentariatuta, eta honela sailkatuta:

| | **Objektuak** |
|---|---|
| Arkeologia | 645 |
| Arte Ederrak | 6.470 |
| Etnografia | 7.677 |
| Argazkiak | 9.216 |
| Historia | 2.661 |
| **GUZTIRA** | **26.669** |

2010ean **bultzada handia** eman zaio **piezak erosteari**, bilduman ziren hutsuneak betetzeko xedez; batez ere, prestaketafasean den erakusketa iraunkor berria osatzeko. Urtean zehar, **526 pieza** sartu dira Museoan; horietatik, 70 erosita, 119 aldi baterako gordailuan, 332 dohaintza gisa, eta 5 pieza museoko jabetza gisa.

## DOKUMENTAZIOA ETA ARTXIBOA

Bildumak erregistratu, katalogatu eta argazkiak ateratzeko lanak **areagotu egin dira** aurten, batez ere erosketak ugaritu direlako eta Museoko erakusketa iraunkor berria prestatzeak eskatzen dituen informazio premiengatik. Jantzien eta ehunen bildumei buruzko katalogazioari eta ikerkuntzari dagokienez, **Ikerfolk**en lankidetza izan da aurten ere.

Digitalizatu egin dira argazki-bilduma batzuk eta zenbait enpresa eta instituzioren dokumentazioa, piezak utzi baitituzte bildumetarako, Museoarentzat interesgarriak diren zenbait gai edo bilduma hobeto dokumentatzeko. Orobat, San Telmoko komentuaren XVI. mendeko historiari buruzko agiriak digitalizatu dira; Zaragozako Probintziako Artxibo Historikoan eta Erromako Predikatzaileen Ordenako Artxibo Nagusian gordetzen dira agiriok.

Bestalde, aurreko urteetan adina kontsulta eta erreprodukzio-eskariri erantzun zaie; ehundik gora izan dira.

Bildumen erosketaren osagarri, zenbait elkarrizketa grabatu dira, **interes dokumentala duten ikus-entzunezko lekukotzak** gordetzeko xedez: "gerrako haur" bat, Apaolaza garraioetako arduraduna, eta alpretagile batzuk.

Artxiboaren atalean, **areagotu egin dira agirien berrikuste-lanak**, eta martxan jarri dira, **Odei** enpresaren lankidetzaz, **Dokumentazioa eta Artxiboa Kudeatzeko Sistema** bat, dokumentazioa bulegoan antolatzea, Artxibora pasatzea eta azken norakoa ematea arautzen dituena. Orobat, bizkortu egin dira bildumekin zerikusi estuagoa duen dokumentazioa berrikusteko lanak, zertarako eta egungo dokumentazio-siste-





ma, piezako dossierretan oinarritua, Dokumentazio Digitaleko Sistema bihurtzeko.

**LIBURUTEGIA**

2010. urtean, San Telmo Museoko liburutegia antolatzen eta prestatzen jarraitu da, eraikin berria jendeari irekiko zaionerako. Gaur egun, liburutegiak **11.000 titulu** inguruko funtsa du; hor sartzen dira monografia zahar eta berriak, DVDak, aldizkariak, foiletoak eta iraupen gutxiko zenbait material -erakusketetarako gonbitak edo txartelak-

**ZAHARBERRITZEA**

2010. urtea **bereziki garrantzitsua** izan da **da zaharberritzeari erreparatu hitz mozketari dagokionez**; izan ere, urtealdi honetan giza eta diru-baliabide asko jarri dira horretarako, eta museoko hainbat alderdi hartu ditu. Horretarako, kontuan hartu da erakusketa iraunkorra, bertan erakutsiko baitira zaharberritutako piezarik gehienak. Harri, ehun, pintura, metal, paper eta zurezko objektuak zaharberritu dira, eta gai bakoitzean espezializaturiko profesionalak ekarri dira kanpotik. **Eraikinean** ere **lan nabarmenak** egin dira alde horretatik; izan ere, harrizko zenbait osagaiz gainera, Kapitulu Gelako arkosolioa zaharberritu da. Orobat, Sert-en margolanen babesa kendu da, lanak hasi aurretik jarrita zegoena.

**KOMUNIKAZIOA**

2010. urtean, **museoaren irudi berria**ren aurkezpena izan da komunikazioaren aldetiko aipagarrietako bat. Urtearen hasieran, hartarako deitutako lehiaketaren esleipena egin zen, eta apirilean aurkeztu zen San Telmo etapa berrian identifikatuko duen irudia. **Webgunea**k museotik kanporako leiho izaten jarraitu du, baina azpimarratu behar da martxan jarri dela, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, tresna hori **eraberritzeko prozesua**, museoa berriro irekitzen denerako prest egon dadin.

**LANKIDETZAK**

2010ean, San Telmo Museoa lankide-sare oso baliagarria eratuz joan da zenbait arlotan eta zenbait helburuz. Bestalde, egitasmo museologiko eta museografikoaren garapenak beste instituzio batzuekin harremanetan sartzea ekarri du, hala nola **Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa, Museo del Prado, Lenbur Fundazioa, Aquarium, Untzi Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Zuloaga Museoa, Euskal Herriko Meatzaritza Museoa, Zumalakarregi Museoa, Museum Cemento Rezola, Makina Erremintaren Museoa…**

Lankidetza horien artean, nabarmentzekoa da **Jorge Oteiza Fundazio Museoa**rekin lortutako akordioa, zeinari esker San Telmoko erakusketa iraunkorrean izango baita sortzailea, eta, horrez gainera, artistarekin zerikusia duten jarduerak sartuko baitira museoaren programazioan.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila**rekiko lankidetzari esker, funts arkeologikoak jarri ahal izango dira erakusgai, eta **Foru Aldundia**rekiko akordioek, berriz, bide emango diote museoari haren funtsak izateko erakusketa iraunkorrean.

Beste lankidetza nabarmen bat **Kutxa**rena da: **diru-ekarpenerako akordioa** sinatzeaz gainera, Boulevard aretoak erabili dira eraberritze-egitasmoa herritarrei aurkezteko; erakusketa horretan, 10.000 bisitari inguru izan ziren joan den abuztuan.

Donostiako Museo Sareari dagokionez, azpimarratzekoa da beste museo bat gehitu zaiola: Real Sociedad-ena.

**ZAHARBERRITZE EGITASMOA**

2010ean, zaharberritze-egitasmoak bi ildo nagusitan egin du aurrera. Batetik, egun gutxi falta dira eraikina amaituta entregatzeko; bestetik, **onartu da egitasmo museografikoa eta jarri da martxan exekuzioa**, Arción enpresaren eskutik jarri ere, udan Lunatus enpresa ordeztu baitzuen. Egitasmo hori azken xehetasuneraino zehaztu da urtean zehar, museoko lan-



gileen, museografiaz arduratzen diren enpresen eta arloetako adituen lankidetzari esker. 2010ean, eraikin erabat berregina estaltzen duen fatxada ipini da, eta hasi dira ipintzen hura partez estaliko duen landaretza.
Bestalde, egin dira kafetegiaren kudeaketaren, altzarien, ikus-entzunezko materialen ekipamenduaren eta irudi berriaren lehiaketak.

Orobat, museoa hasi da **enpresen eta instituzioen mundura hurbiltzeko lanean**, funtzionamendurako beharko dituen babesak lortzeko. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa, EITB eta beste hainbat enpresarekin lortutako akordioak, San Telmo Museoaren patroi izan daitezen.

**BESTE UDAL ONDARE BATZUK**

Irekita daude dagoeneko jendearentzat Aieteko Jauregiko zenbait areto, zeinaren prestakuntzan hartu baitu parte San Telmo Museoak, piezak hautatuz eta zurezko pieza guztiak hara eraman baino lehen tratatuz.

# San Telmo Museoa

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

**Kultur Etxeak**

| | **Kopurua** | **Bisitariak** |
|---|---|---|
| Pintura | 14 | 7.398 |
| Eskulanak | 3 | 429 |
| Marrazkiak | 4 | 3.043 |
| Argazkiak | 11 | 18.561 |
| Eskultura | 1 | 2.000 |
| Gaikakoak | 8 | 9.807 |
| Beste batzuk | 7 | 1.556 |
| **GUZTIRA** | **48** | **42.794** |

**LIBURUTEGIAK**

| | **Kopurua** | **Bisitariak** |
|---|---|---|
| Eskulanak | 1 | 4.038 |
| Argazkiak | 3 | 19.665 |
| Gaikakoak | 1 | 6.546 |
| Beste batzuk | 3 | 11.137 |
| **GUZTIRA** | **8** | **41.386** |

Gainera, erakusketekin zerikusia zuten **4 jarduera** egin dituzte kultur etxeek, eta **313 lagunek** parte hartu dute jarduerotan.

Donostia Kulturako zentroetan programatu diren erakusketak, 2010. urtean ere, askotariko gai eta diziplinetakoak izan dira. Nabarmentzekoa da **erakusketa-gune berri bat** ireki dela: **Aiete Kultur Etxeko erakustaretoa**. Areto hori kalitatezko erakusketak antolatzeko xedez sortu da; edukiek, nagusiki, Bakearekin eta Giza Eskubideekin izango dute zerikusia. Gainera, bertako artisten proposamenak jasoko ditu. San Telmok, ateak 2011ko udaberrian irekitzekotan baita, ez du programatu inolako erakusketarik, baina eraberritze-egitasmoa ezagutarazi du joan den udan Kutxako Boulevard aretoetan egindako erakusketan.

Bildu diren datuak, beraz, beste gune batzuetan programaturiko erakusketei dagozkie; kasu honetan, **kultur etxeetan** -aipamen nabarmena merezi dute **Okendo Kultur Etxe**koek eta **Aiete Kultur Etxe**koek, alor horretan berezituak izaki– eta liburutegietan egindakoei: Liburutegi Nagusia, San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoa eta Egia Kultur Etxeko Liburutegia.







# Antzoki Zaharra

| | Egunak | Lanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|---|
| Dferia | 3 | 3 | 3 | 670 |
| **Guztira** | **3** | **3** | **3** | **670** |
| | | | | |
| **Neguko antzerkia** | | | | |
| Antzerki profesionala | 31 | 11 | 31 | 5.933 |
| Haur antzerkia | 10 | 3 | 10 | 2.152 |
| Dantza profesionala | 1 | 1 | 1 | 335 |
| Gazteen Antzerki Topaketa | 18 | 18 | 18 | 1.609 |
| Nosferatu | 15 | 15 | 15 | 2.574 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea | 7 | 52 | 20 | 10.212 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 5 | 3 | 5 | 1.836 |
| Surfilm Festibal | 4 | 55 | 12 | 1.943 |
| Ziklo eta saio bereziak | 4 | 4 | 4 | 838 |
| Tinko (zinea: eskolentzako paseak) | 28 | 11 | 28 | 7.552 |
| **Guztira** | **123** | **173** | **144** | **34.984** |
| | | | | |
| **Udako antzerkia** | | | | |
| Antzerki profesionala | 45 | 9 | 56 | 15.952 |
| **Guztira** | **45** | **9** | **56** | **15.952** |
| | | | | |
| **GUZTIZKOAK GUZTIRA** | **171** | **185** | **203** | **51.606** |
| | | | | |
| Alokairuak | 13 | | | |
| Lankidetzak | 24 | | | |
| Proba-saioak | 6 | | | |
| **GUZTIRA** | **43** | | | |





Antzoki Zaharrak bere lekua aurkitu du Victoria Eugeniaren gune osagarri gisa, baina bere ezaugarriak gordez betiere: euskarazko antzerkia, euskal konpainiak, ikuskizun izarrak udan, txikienentzako antzerkia eta zinea, zinemaldiak… Antzoki Zaharrak urteek ematen duten zapore horri eusten dio, Donostiako eta kanpoko antzerkizale leialek hain preziatua duten keru horri.

2010eko **Udako Antzerki Denboraldia**k zalantza asko sorrarazi zituen ekonomiaren egoera zela eta, baina emaitza onak izan ditugu. **Komedia** hutsa izan da nagusi, era guztietako aldaerekin; esate baterako: astrakana ***La venganza de Don Mendon***, vodevila ***100 m2***n, komedia arina ***Brujas***en, goi mailako komedia ***El pez gordo***n, amodiokontuak ***Sexos***en… Denak ere ikus-entzuleei aldi atsegina pasarazteko xedez, baina baita interesatzen zaizkigun eta gure bizitzan eragina duten gaiak jorratzeko ere: maitasuna, leialtasuna, interesa, adiskidantza, sexua, zorionaren bilaketa, denboraren joana… Udako hilabeteotan zehar, autore garrantzitsuen testuak izan ditugu gozagai: **Muñoz Seca, Juan Carlos Rubio, Santiago Moncada**…, espainiar autoreak aipatzen hasita; **Yasmina Reza** eta **Roger Rueff**, berriz, atzerrikoen artean. Ikuskizunok zuzendari ospetsuek zuzendu dituzte: **Gabriel Olivares, Manuel Galiana, Juan Carlos Rubio, Tamzin Towsed, Tricicle**…, eta 100 aktore baino gehiagok parte hartu dute, asko eta asko espainiar antzerkian puntakoak. Honako hauek, besteak beste: **Javier Veiga, Enrique San Francisco, Toni Cantó, Paco Valladares, Juanjo Artero, Angel Pardo, José Luis Gil.** Eta emakumeak? Honako hauek, besteak beste: **Amparo Larrañaga, Nuria González, Juncal Rivero, Arantxa del Sol, Anabel Alonso, Marta Belenguer, Mirian Díaz-Aroca, María Luisa Merlo**.

Neguan, Tanttakaren estreinaldi bat izan dugu, Rafael Herrerok idatzitako ***No me hagas daño***; bost aktorerentzako lana, **Isidoro Fernández** eta **Kike Díaz de Rada** buru zirela, eta **Fernando Bernués** eszena-zuzendari. **Angeles Martín** eta **Alejandra Torray**k berrelkartze bat planteatzen dute ***Y sin embargo te quiero*** lanean: 40 urtez ideologia- eta familia-gorabeherak zirela-eta bananduta egondako pertsona batzuen berrelkartzea. ***El Galán fantasma***k Calderón de la Barcaren testu bat ekarri digu Kale Nagusiko antzokira.

**Euskarazko programazioa**n, berriz, **Txalo** eta **Kanpingags** konpainiak izan dira, ***Ezker-eskuma*** eta ***Xabinaitor*** lanekin; azkena, **Anjel Alkain**en eskutik.

**Donostiako Nazioarteko Zinemaldia** ez ezik, **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** hartu du Antzoko Zakarrak, bai eta **Amstel Surfilm Festibal** eta **Giza Eskubideen Zinemaldia** ere.



# Kultur Etxeak

## (Kultur Ekintzako Zerbitzua)

Barne-gogoetarako urtea izan da 2010, **Kultur Ekintzako Zerbitzuan 2010-2020 aldirako Plan Estrategikoa** mamitzeari begira. Kultur etxeez hausnarketa egiteko unean gaude: haien egitekoaz, balioez eta etorkizunaz. Gogoeta horien ondorioz, lehen azterketa bat egin da, gaur egungo egoera eta etorkizunean aurre egin nahi diegun erronka estrategikoak biltzen dituena.

Donostiako zortzi auzotan dauden hamar zentrok osatzen dute kultur etxeen sarea:

Casares-Tomasene Kultur Etxea eta Larratxo Kultur Etxea (Altzan)
Okendo Kultur Etxea (Grosen)
Larrotxene eta Intxaurrondo Berri Kultur Etxeak (Intxaurrondon)
Loiola Kultur Etxea (Loiolan)
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguan)
Egia Kultur Etxea (Egian)
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amaran)
Aiete Kultur Etxea (Aieten)

Azken kultur etxe horrek abenduaren hondarrean ireki zizkien ateak herritarrei, eta oso harrera ona izan du Aieteko auzoan.

**Programazioa**ri dagokionez, 2010. urtean hasi dira zehazten **kultur etxe** gehienen **espezializazioak**, eta garatzen **zeharkako programak**, indarrak hobeto kudeatu ahal izateko, maila guztietan lankidetza bultzatuz, hala Donostia Kulturako zein Udaleko unitateen artean nola kultur eragileekin, ekimen pribatuekin…

Horren guztiaren ondorioz, zenbait programa jarri dira martxan, eta kultur etxeetan ibilbidea egina zuten beste batzuk berritu dira; nabarmentzekoak, besteak beste:

**San Miguel Donostikluba musika-zirkuitua.**
Ideia nagusia, zirkuitu berri bat sortu eta hedatzeari ekiterakoan (Donostikluba izenekoan du jatorria), hirian sortzen den **musika-jarduera guztia bistarazi eta nabarmentzea** da, batez ere formatu txiki eta ertainekoa, gazte-jendeari eta ezaugarri alternatibokoenari zuzendua. Asmoa musikaren arloan lan egiten duten **sortzaileak dinamizatu, babestu eta sustatzea** da, eta kultur sentiberatasuna duen ikus-entzuleria sortzea txikitik, egunerokotik eta erreal denetik abiatuta. Erakustea Donostian, antolakizun eta jaialdi handiekin batera, badela kultur oinarri erreal bat, arte-jardueren mapa bat marrazteko bidea ematen duena, eta sortzaileak, teknikariak, profesionalak eta, oro har, herritarrak biltzen dituena. **Belaunaldi berrietan ikus-entzuleria berriak sortzeko** oinarriak erein nahi lirateke.
Musika-zirkuituak hiriko 12 klub eta gune biltzen ditu ekimen horretan, musika-programazioan erreferente direnak. Egitasmoak marka komertzial baten babesa du, eta erreferente bihurtu nahi du Estatuan musika independentearen barruan.
Programazioa udazkenean hasi zen, hogeitik gora kontzerturekin, eta arrakasta handia izan zuen ikus-entzuleen artean: 4.410 lagun zenbatu ziren gune publiko eta klub pribatuetan.

**B aldea**
Programazio-kontzeptu berria da, kultur etxeetan eta beste gune publiko batzuetan garatua; hirian egiten diren kultur jarduerak bestelako begiz ikustea proposatzen du. Asmoa zera da, aberastea, osatzea, "diskoaren beste aldea" izatea, formatu txiki, hurbilekoan; gogoetara, pentsaera kritikora, elkarrizketara eta esperientzien trukera irekitako gunea.

2010ean, jarduera nagusiak **Giza Eskubideen Zinemaldia**rekin parez pare egin ziren proiekzio eta hitzaldiak izan dira: Ernest Lluch Kultur Etxeko eta EHUko Campuseko **Telesail berriak,** fikzio berriak jardunaldiak, eta **Ingurune mobila** esperientzia, Donostia 2016 eta Donostia Kulturako Zine Unitatearekin lankidetzan.

**Hiri Memoria**
Egitasmo honek hiri-oroimenarekin zerikusia duten sinergiak bideratu eta bultzatu nahi lituzke Donostian, hiritarrei adierazpidea emango dieten jarduerak garatuz (ikus-entzunezko formatuetan batez ere) beren auzoen iraganaz, orainaz eta geroaz; koherentzia eman eta helburuak bateratu nahi ditu ideia horren inguruan azken urteetan sortu diren ekimenen artean. Zeharkako egitasmo horrek Donostia 2016ren eta **Auzoak eta Hiritarren Partaidetza** eta **Gizarte Ongizate** departamenduen laguntza du.

**Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia**
2010ean, Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiak zenbait berrikuntza izan ditu programazioaren eta emanaldien guneen aldetik. Ia **1.000 ikus-entzule** izan dira jaialdia osatu duten **21 emanaldi**etan; formatu txiki eta ertaineko antzerkia ikus-entzule gazteenei hurbiltzea izan da xedea. Oihulari Klown taldeak autobus turistikoan emandako prentsaurrekoa, magia-saioak unibertsitateetarako autobusetan (Dbus-ekiko lankidetzari esker) eta emanaldi bat campusean bertan: horiek izan dira jaialdiaren osagai batzuk.

**Literaktum**
Seigarren edizio honetan, **400 lagunetik gora** izan dira partaide hitzaldi eta kontzertuetan; horri, Ikuspegi goxoak erakusketara etorritakoak erantsi behar zaizkio, Lugaritz Kultur Etxearen proposamen bat izan baitzen hura programa honen estreinaldian, **Alliance Française**ren eta **EKE** Euskal Kultur Erakundearen eskutik. Nabarmentzekoa, halaber, **Pintxos&Blogs** kolektiboak Poesia Urumea bazterrean saioan izandako parte-hartzea, hiriko parkeak beste modu batzuetan ere erabil daitezkeela erakutsi baitzieten herritarrei, aisia eta gastronomia-, gizarte- eta kultur erabilerak uztartuz.

**LANKIDETZAK**
Instituzioen arteko lankidetzen eremuan, Kultur Ekintzako Zerbitzuak zenbait lankidetza-**hitzarmen** egin ditu 2010ean; batetik, kultur eta gizarte-eragile berriak erakartzeko eta, hartara, Donostia Kulturak hiriari egiten dion kultur ekarpena aberasteko; bestetik, mugaz haraindiko kultur zubiak ezartzeko, Baiona-Donostia eurohiria egituratzeari begira.

Honako **eragile** hauekin egin dira hitzarmenak: **UPV/EHU, El Diario Vasco eta Gipuzkoako Liburuzainen Elkartea**rekin (DKliteratura programan). Mugaz haraindikoaren arloan, lankidetza-hitzarmen bana egin dira: **Biarritzeko L'Atabal**ekin, bertako musikaren erakustaldiaz; eta EKE Euskal Kulturaren Erakundearekin, zeinaren bitartez bi aldeetarako lankidetza-markoa ezartzen baita formatu txikiko ikuskizunei buruz, muga hor izateak dakartzan administrazio- eta kultur oztopoak gainditzeko xedez.

Orobat, jarraitzen dugu jarduerak koproduzitzen; Literaktum jaialdian, adibidez, **Göethe Institut**ekin, Alliance Française-rekin…, beste eragile batzuk ahaztu gabe, hala nola Ni Neu jatetxea edo Pintxos&Blogs, biek ere B aldearen programazioaren proposamenetan hartu baitute parte.

# Kultur Etxeak

## (Kultur Ekintzako Zerbitzua)

Kultur etxeetatik 2010ean eskainitako jarduera eta zerbitzuen kopuruen datuak, eta horietaz baliatu diren erabiltzaileenak ere, honako hauek dira:

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 172 | 24.260 |
| Dantza | 35 | 8.595 |
| Zinea | 27 | 2.669 |
| Bideoa | 112 | 7.066 |
| Musika | 89 | 18.713 |
| Hitzaldiak | 91 | 3.561 |
| Erakusketak | 56 | 49.733 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 1.011 | 22.067 |
| Aretoen alokairuak | 88 | 14.333 |
| Liburutegiko jarduerak | 418 | 7.480 |
| Hainbat | 57 | 4.759 |
| **GUZTIRA** | **2.156** | **163.236** |

| ZERBITZUAK[1] | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitak | | 607.056 |
| Ikasteko gelak | | 7.961 |
| Wifi konexioak[2] | | 13.674 |
| KZgunea (Internetera sarbidea)[3] | | 68.474 |
| KZgunea (IT Txartela)[4] | 745 proba | 6.674 |
| **GUZTIRA** | | **703.839** |

| PRESTAKUNTZA | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| 2010-2011 ikastaroak[5] | 209 | 3.479 |
| Ikastaro puntualak | 13 | 194 |
| Udako ikastaroak | 4 | 111 |
| KZguneko ikastaroak | 200 | 1.589 |
| **GUZTIRA** | **426** | **5.373** |

Udaleko beste alor batzuekin lankidetzan, azken urteotan honako zerbitzu hauek integratu dira kultur etxeetan, sektore horietara iristeko asmoz:

**Haurtxokoa**
Udalaren Haurtxoko Sarea 7 ekipamenduk osatzen dute; horietariko lau, Aiete Kultur Etxea ireki ondoren, kultur etxeetan integratuta daude. Zerbitzu horiek eskaera handia jasotzen dute oraingoz; adibidez, 2010ean 582 haur etorri dira lehen aldiz.

**Gaztelekua**
Zazpi guneok 13 eta 17 urte arteko nerabeei zuzenduta daude. Kasu honetan, Aiete, Amara, Antigua, Egia eta Grosero gaztelekuak daude integratuta auzo horietako kultur etxeetan. Bost zentrootan, 1.623 gazte daude izena emanda, eta horietarik 742 ohiko erabiltzaile dira.



**Musikagela**
Zazpi saio-areto intsonorizatuk, DJentzako lantegi batek eta biltegi batek osatzen dute Egia Kultur Etxeak saio-aretoak aldi baterako uzteko duen zerbitzu hau, eta zerbitzua erabiltzen duten taldeek bertan gorde ditzakete musika tresnak.

**Plus 55**
Gizarte Ongizatearen unitateak eta Donostia Kulturak bultzatutako programa da, 55 urtetik gorakoen aisialdirako; dinamikoa da eta etengabe ari da bilakatzen. Gizatalde horretako boluntarioek bultzatu eta egindako ekimenak eta egitasmoei laguntzea du helburu, bai eta 55 urtetik gorako pertsonen artean kultur etxea indartzea sozializazio gune gisa, bertako jarduera eta zerbitzuen bitartez.

Hona hemen programaturiko jardueren bitartez zerbitzu horietaz baliatu diren erabiltzaileen kopurak:

| SEKTORE ZERBITZUAK | jarduerak | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Haurtxokoa | 349 | 11.992 |
| Gaztelekua | 311 | 20.750 |
| Plus 55 | 342 | 13.624 |
| Musikagela | 38 | 6.350 |
| **GUZTIRA** | **1.082** | **52.582** |

Orobat, Kultur Ekintzako Zerbitzutik, eta beste atal eta erakunde batzuekin lankidetzan, populazio-sektore jakin batzuei zuzendutako jarduerak diseinatzen eta programatzen dira kultur etxeetarako: **Gaztemaniak!, Gabonak Zuretzat, Donostia Mundu artean, Emakume Asteak**, eta abar.

Bestalde, inguruan kultur etxerik ez duten aldeetan, lankidetza-**hitzarmenak** sinatu dira bertako **elkarteekin**, alde horietan kultur programa eta jarduerak garatzeko. 2010ean, honako hitzarmen hauek sinatu dira:

| | |
|---|---|
| - Igeldoko Herri Kontseilua | Igeldo auzoa |
| - Etxadi Kultur eta Kirol Elkartea Eta Lantxabe Elkartea | Aiete auzoa |
| - Añorga Kultur eta Kirol Elkartea | Añorga auzoa |
| - Mundo Nuevo Elkartea | Amara Zaharra auzoa |
| - Zubietako Herri Batzarra | Zubieta auzoa |

1 Espezializazioei dagozkien zerbitzuak (irratia, bideoa…) kultur etxe bakoitzari dagokion atalean ageri dira.
2 Donostiako Sustapenarekin batera kudeatua, ekainetik. Loiola eta Larrotxene kultur etxeetan.
3 Eusko Jaurlaritzarekin batera kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares-Tomasene, Okendo eta Lugaritz kultur etxeetan.
4 Informazio Teknologietako oinarrizko gaitasunen ziurtagiri txartela.
5 Astean saio bat, urritik abendura. Prestakuntzaren atalean ez dira jaso 2009an hasi eta 2010ean amaitu ziren ikastaroak, ez eta izena urrian eman ondoren 2011ren bigarren lauhilekoan egiten direnak ere.

# Aiete Kultur Etxea

| JARDUERAK[6] | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 2 | 330 |
| Dantza | 1 | 220 |
| Bideoa | 1 | 165 |
| Musika | 8 | 1.130 |
| Erakusketak | 1 | 2.000 |
| **GUZTIRA** | **13** | **2.828** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 4.107 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 6 | 1.406 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 7 | 361 |
| Ikasteko gela | 7 | 1.500 |
| Wifi konexioak | 12 | 465 |
| **GUZTIRA** | **32** | **7.839** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 15 | |





2010eko **abenduaren 20**an ireki zituen ateak **Aiete Kultur Etxe berriak**; Aieteko Kultura Parkean dago, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxetik gertu. Kultur Etxe berri horrekin, hedatuz jarraitzen du Donostia Kulturaren kultur etxeen sareak. Eraikin berria erdi-lurperatua eta lorategietan integratua dago, eta kultur etxe baten zerbitzu nagusiak ditu; Isuuru arikitektura-estudioak egin du.

Aiete Kultur Etxeak inaugurazio-programa aurkeztu zuen; bertan, musika folklorikoa, klasikoa, etnikoa eta lirikoa bildu zituen, bai eta eskultura ere, **Jose Angel Lasa** euskal eskultorearen eskutik. Egunari hasiera emateko, Iban **Nikolai**ren didgeridooaren soinu zaharra izan genuen, zain zegoen jende ugaria eraikinaren barrualdera erakartzeko. **Gero Axular Dantza Talde**ak eskainitako euskal dantzen ikuskizunak egin zien ongi etorria denei sarrerako hallean. Bestalde, **Easo Musika Eskola**ko harpa taldeak -Onintza Albeniz, Ane Mendazona eta Irene Díez-ek osatua, Ane Artetxeren zuzendaritzapean-, liburutegian bildutakoen belarriak gozatu zituen. **Araoz Gaztetxo Abesbatza**ko 12 eta 16 urte arteko 38 neskato eta nerabek, Gorka Miranda zuzendari zutela, ahotsa jarri zieten Guridiren zenbait piezari, Oscar Candendo piano-jotzaileak lagunduta. Ekitaldi Aretotik **Oreka-Tx**-eko Harkaitz Martinez eta Igor Otxoa txalapartarien *ttakun* eta *herrena*ren soinuak gonbita ziren *Nomadak Tx Zuzenean* ikuskizunaz gozatzeko; zuzeneko emanaldia, munduan zeharkako bidaian egindako dokumentalaren irudiz lagunduta. Bikoteari laguntzen, **Aziza Brahim** kantari saharatarra eta **Mixel Ducau** musikaria; Iban Nikolairekin batera, amaiera bikaina eman zioten gau ederrari: Aiete Kultur Etxeak auzoarekin eta, oro har, herritarrekin izandako lehen hitzorduari.





6 2010eko abenduan ireki zen. Inaugurazio-programako datuak (2010eko abenduaren 20tik 31ra).

# Casares-Tomasene Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 9 | 1.498 |
| Dantza | 1 | 110 |
| Bideoa | 10 | 247 |
| Musika | 5 | 356 |
| Hitzaldiak | 16 | 370 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 26 | 317 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 108 | 1.808 |
| Aretoen alokairuak | 3 | 297 |
| Liburutegiko jarduerak | 39 | 465 |
| Hainbat[7] | 3 | 557 |
| **GUZTIRA** | **220** | **6.025** |

| ZERBITZUAK | | Erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 57.148 |
| Plus 55 (jarduerak) | 19 | 492 |
| Kzgunea | | 8.863 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 136 | 1.062 |
| Wifi konexioak | | 1.203 |
| **GUZTIRA** | **155** | **68.768** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | | 47 |
| **IRRATI TAILERRA** | | |
| Irrati tailerra: erabiltzaileak | 2 | 17 |
| **URTEKO BISITARIAK** | | **102.911** |









Casares-Tomasene auzoari begira bizi den kultur etxe bat da, auzotarrekin batera lanean diharduena. Zaila da jendea erakartzea eta bertako elkarteekin elkarlanean aritu nahi eta behar dugu auzoa gure ekitaldietara etortzeko.

Hala ere, urte oparoa eman du programazioak eta lortu dugu **ekitaldi arrakastatsuak** egitea. Tomaseneko aretoa formatu txikiko musika zein antzerki emanaldiak egiteko oso aproposa da eta horren adibide dira bertan egin diren piano, gitarra edo Maddi Oihenarten kontzertuak.

**Hamargarren bertso astea**k Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bost finalistak ekarri zituen Altzara eta saio polita ikusteko aukera izan genuen. Kale Antzerkiek harrera ona dute auzoetan eta balorazio positiboa egiten da interbentzio hauetaz auzoko elkarteekin. **Berpiztu elkartea**ren eskutik III Kulturarteko Topaketan aretoa beteta egoteaz gain herrialde ezberdinetako dantza eta musika ikuskizunez gozatzeko aukera izan genuen.

**Musika eskola**ren presentzia handituz eta sendotuz doa. Auzoan bere tokia hartzen ari da eta eskaintza zabaltzen ari da urtetik urtera. Musika gela hobeto ekipatua dago eta beste gela txiki bat ere euren zerbitzura jarri da piano ikasleek tokia izan dezaten entsaioak egiteko.

Azken batean elkarlanean diharduen kultur etxe baten lan dinamika da hau. Ekitaldiak etengabe ebaluatzen eta urtetik-urtera hobetzen saiatzen den kultur etxe baten urteko memoria.

---

7 Bertso Afaria, Bertso jaialdia eta Bertshow.

# Larratxo Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 10 | 1.058 |
| Dantza | 9 | 1.064 |
| Bideoa | 1 | 160 |
| Musika | 9 | 1.677 |
| Hitzaldiak | 2 | 340 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 3 | 50 |
| Erakusketak | 1 | 324 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 143 | 4.589 |
| Aretoen alokairuak | 1 | 125 |
| Hainbat[8] | 1 | 100 |
| Liburutegiko jarduerak | 26 | 265 |
| **GUZTIRA** | **206** | **9.752** |

| ZERBITZUAK | | Erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 16.969 |
| Plus 55 (jarduerak) | 11 | 1.075 |
| Wifi konexioak | | 1.198 |
| **GUZTIRA** | | **19.242** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | | 4 |

| | |
|---|---|
| **URTEKO BISITARIAK** | **12.080** |









Izena aldatzea izan da aurtengo berrikuntzarik nabariena Larratxo Kultur Etxean. Orain arte Altzako kultur etxea izan da eta uste dugu izen aldaketa honek on egingo diola funtzionamenduari, konfusio handia sortzen baitzuen aurreko izenak, denak Altzako Kultur Etxea Casares zela uste baitzuten.

Gune eszenikoa ekipatzen eta hobetzen jarraitzen dugu eta horren bidez kalitatezko ikuskizunak eskaintzea ahalbideratzen dugu.
Musikan aipatzekoak dira sona handiko taldeak izan ditugula eta jendearen erantzunean antzeman da hori Brainstorm edo Brant Bjork-en moduko taldeek aretoa bete dute eta Donostiako musika programazioan bere lekua hartzen ari dela konprobatu dugu Larratxo.
Formatu handiko haur antzerkiak programatzen jarraitzen dugu eta bertako zein kanpoko konpainiak izan ditugu Herrialde Katalanetakoak edo Italiarrak besteak beste. **Markeliñe**ren *Kartoi Biraka*, **Kukubiltxo**ren *Dir-Dir*, **Quelli di Groc**ken *Sin Cola*, **Perpoc**-en *Peru eta Otsoa*, **Marie de Jongh**-en *Robot Maitea*… Auzoko zein Donostiako haurrek kalitatezko antzerki obrak ikusi ahal izan dituzte eta haurrak zein helduak bide horretan hezten jarraitu behar da.

**Dantza**rekin lotuta Sebillanen jaialdiak aretoa betetzen du eta Emakumeen Asteko dantza ikuskizunek ere arrakasta handia dute. Bestalde Larratxon egiten dira dantzaren inguruan eskaintzen diren ikastaro guztiak Emakumeen Elkartetakoak zein Kultur Etxekoak. Emakumeen Astea eta Extremeñoen Aste Kulturalak arrakasta handia dute eta elkarlana sendotuz jarraitzen dugu Elkarteekin.

**Kultura Urbanoaren** inguruan lan egin nahi dugu eta aurten bigarren aldiz Urban 13 elkartearekin batera ekitaldi bat egin dugu Larratxon. Lehenengo urtean lehiaketa bat antolatu bazen, aurten formatuz aldatu eta auzoko gazte rap-eroen erakusketa bat izan da AltzaRap izena jarri diogu. Auzoko gazteek mikroa eskuetan euren kezkak eta protestak adierazi ahal izan dituzte kantari. Publiko gazte horri gerturatzeko bidea da eta bide horretan lan egin behar dugu, horrelako ekitaldiek gorputz hartzea eta sendotzea apropos ikusten dugu.

8 Fiesta Solidaria

# Egia Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 39 | 6.400 |
| Dantza | 20 | 3.611 |
| Bideoa | 8 | 225 |
| Musika | 28 | 8.828 |
| Hitzaldiak | 16 | 369 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 31 | 451 |
| Erakusketak | 11 | 5.138 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 62 | 1.037 |
| Aretoen alokairua | 41 | 10.620 |
| Liburutegiko jarduerak | 49 | 699 |
| **GUZTIRA** | **305** | **37.378** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 51.139 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 84 | 4.566 |
| Ikasteko gela | | 6.920 |
| Musikagela | 38 | 6.350 |
| KZgunea | | 6.217 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 138 | 1.287 |
| Wifi konexioak | | 1.627 |
| **GUZTIRA** | **222** | **78.106** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 30 | |

| | | |
|---|---|---|
| **URTEKO BISITARIAK** | | **155.764** |

Egia Kultur Etxea sendotu egin da **gazteentzako** topagune eta erreferentzia-puntu gisa. Arte eszenikoen eta musikaren programaziotik hasi eta ikastaroetaraino -batez ere dantzarekin zerikusia dutenetaraino- , gazteen partaidetza nabarmena izan da aurten.

Musikaren aldetik, urte joria izan da: **Gaztemaniak!, San Miguel Donostikluba Zirkuitua, Festibaila, Ttan Ttakun Irrati Festa** edo **Soundvisionfest** programa, eta, jaialdiez gainera, egitasmo berriak izan ditugu, **Musika Gela Weeken**d, irabazi asmorik gabeko musika talde eta elkarteen lehen topaketa; guztiarekin, jarduera-mapa oso erakargarri eta interesgarria osatu da urtean zehar.

**Dantza, antzerki eta zirkoan**, hizkuntza berrien aldeko apustua egin da; aurten, Sol Picó, Baro d'evel cirk, Cobosmika, Cirkus Klezmer, Kukai edo Le Petit théâtre du Pain etorri dira, besteak beste. Haurrek gozatu ederra hartu dute **Markeliñe** eta **Nats Nus**ekin, bai eta **Aracaladanza**, 2010eko haurrentzako Antzerki Sari Nazionalarekin ere.

**Espaziarte** urtero berritzen den sorkuntzarako erakustokia da; aurten ia 200 lagunek parte hartu dute, eta kolorez bete nahi izan dute kultur etxea beren margoekin.











# Ernest Lluch Kultur Etxea – Amara

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 17 | 2.104 |
| Bideoa | 42 | 1.960 |
| Musika | 4 | 315 |
| Hitzaldiak | 29 | 1.089 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 45 | 945 |
| Erakusketak | 9 | 1.961 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 388 | 8.752 |
| Aretoen alokairuak | 18 | 207 |
| Liburutegiko jarduerak | 85 | 1.672 |
| Hainbat | 6 | 133 |
| **GUZTIRA** | **643** | **19.138** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 153.591 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 162 | 5.389 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 77 | 5.967 |
| Plus 55 (jarduerak) | 120 | 4.984 |
| Ikasteko gela | 112 | 1.041 |
| KZgunea | | 20.807 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 146 | 1.347 |
| Wifi konexioak | | 1.623 |
| **GUZTIRA** | **617** | **194.749** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 46 | |

**URTEKO BISITARIAK** **181.191**

2010 **berrikuntza** urtea izan da Ernest Lluch Kultur Etxean. Erreferentzia-puntu izaten jarraitzen du Amarako eta, oro har, Donostiako herritar eta elkarteentzat bere programazioari eta zerbitzu integratuen eskaintzari esker. Auzoko zenbait eragilerekin batera, ***Amarauna: auzoa eraikiz*** egitasmoa bultzatu da, zeinaren helburua lurraldearen iragana eta oraina hobeto ezagutzea baita, eta pertsona eta tokien oroitzapen horiek ezagutaraztea.

Ikastaroen eskaintza literaturako eta nazioarteko panoramari buruzko autore-ikastaro zenbaitekin sendotu da; **Luisa Etxenike**k eta **Jesus Torquemada**k eman dituzte, eta horrek Ernest Lluch **eztabaida, ezagutza eta analisi kritikorako erreferentzia** bihurtzeko apustu irmoa adierazten du. Horren beste adibide bat dira telebistako fikzioari eskainitako jardunaldiak, **Telesail berriak, fikzio berriak**; Donostia 2016 Bulegoarekin, Donostia Kulturako Zine Unitatearekin eta EHUrekin lankidetzan antolaturik, zenbait aditu bildu ziren bertan.





Programazioa gero eta anitzagoa da, baina arreta berezia eta gero eta handiagoa eskaintzen dio **literatura**ri: Literatur solasaldiak, Narratzaileen Txokoa, Literaktum jaialdia eta idazleekiko solas eta topaketak (**Juana Salabert, Annie Freud, Kirmen Uribe, Karmelo Iribarren**, besteak beste) literatura eta sorkuntzako ikastaro eta lantegiekin osatu dira.

**Erakusleihoa**k sendotuz jarraitzen du programa berezi gisa; formatu txikiko proposamen diziplinarteko eta esperimentalak eskainiz jarraitzen du; nabarmentzekoak, besteak beste, **Kandido Uranga**ren *Miranderen inguruan*, estreinaldia, eta *Oteiza: textos y otros poemas*, **Patxi Santamaria**ren estreinaldia, edo **Roger Wolfe**ren *Noches de blanco papel*.

Zineak hitzordu aldaezina du hileroko **zinekluba**rekin; 50 film baino gehiago eskaini ditu berriz ere, ziklo eran, eta zenbait pertsona gonbidatu dira bertara, solasaldia sakontzeko. Atal horretan, aurten ere lankidetza izan da Giza Eskubideen Zinemaldiarekin eta Dock of the Bay-rekin, zenbait jarduera eta proiekzio bertan eginez.

**Erakusketei** dagokienez, nabarmentzekoak, besteak beste, Ceinprok Donostia 2016ren hautagaitzaren alde egindakoa, edota Adriana Ibargoyenen *Paisaje urbano* izenekoa.



**Txikienek** txotxongiloak, pailazoak eta aztiak izan dituzte gozabide; aurten, horiez gainera, haurrentzako zine proiekzioak ere izan dituzte. Horri beste hauek gehitu behar zaizkio: astearteroko Ipuinaren ordua, Kutxa magikoa edo Liburutegiak antolaturiko bisita gidatuak eta Haurtxokoak urte osoan zehar eskaini ohi dituen jarduerak.

Ernest Lluch auzora irekita egon da: **kale antzerkiak, abesbatzek** edo **poltsiko antzerkiak** auzoko kale eta plazetara hedatu dute programazioa, hasi Amara Zaharretik eta Loiolako ibaiertzerainoko eremua hartuz.

# Larrotxene Kultur Etxea

| **JARDUERAK** | **kop.** | **erabiltzaileak** |
|---|---|---|
| Antzerkia | 10 | 786 |
| Zinea | 7 | 84 |
| Bideoa | 17 | 379 |
| Musika | 6 | 465 |
| Hitzaldiak | 5 | 320 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 8 | 138 |
| Erakusketak | 6 | 348 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 18 | 355 |
| Liburutegiko jarduerak | 45 | 1.282 |
| Hainbat | 4 | 62 |
| **GUZTIRA** | **126** | **4.219** |

| **ZERBITZUAK** | | **erabilerak** |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 15.707 |
| Wifi konexioak | | 774 |
| **GUZTIRA** | | **16.481** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 24 | |

| **BIDEO TAILERRA** | **kop.** | **erabiltzaileak** |
|---|---|---|
| Maileguak | 15 | 6 |
| Ekoizpenak | 12 | 54 |
| **GUZTIRA** | **27** | **60** |

| | |
|---|---|
| **URTEKO BISITARIAK** | **21.516** |





2010ean, Larrotxenek sakondu egin du hiriarekiko harremana **ikus-entzunezkoen** espezializazioaren bidez; Intxaurrondo Zaharrari, berriz, lehendik zeuden zenbait jarduera eta beste berri batzuk eskaini dizkio.

**Bideoa**ren arloan, oso sorkuntza-korronte interesgarria sortu da eta jarraitzen du kultur etxeko **autore-ikastaro**en inguruan. **Jorge Gil, Michel Gaztambide, Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño, Juantxo Sardón, Angel Aldarondo, Izibene Oñederra** eta **Aritz Moreno** dira ikus-entzunezkoen arloko zenbait profesional, beren jakinduria ikasleekin partekatu dutenak; sarri, burututako lan interesgarriak izan dira emaitzak. Prestakuntzaren aldeko apustuak izango du segida aurrerantzean ere; hartara, tarteko lan bat egingo da, osagarria eta beharrezkoa, oinarri-oinarrizko ezagutzen eta irakaskuntza arautuaren artean.



Ikus-entzunezkoen espezializazioak beste kolektibo batzuekiko lankidetza ekarri du (Sodepaz, Cristina Enea, Atzegi…); horietako batzuek jarraipena izango dute 2011n ere.

Intxaurrondo Zaharreko programazio soziokulturalean, **Emakume Astea** eta Intxaurrondo Kantuz-Lagunekin Kantari jarduerek izan dute aurten ere harrera onena. Nabari da oso adin txikiko haurrak ugaldu direla, eta kultur etxera etortzeko ohitura hartu dutela. Haientzat eta familientzat, Haur arratsaldeak izeneko zikloa hasi da, proiekzioz eta lantegi irekiz osatua.



Urtean zehar, arreta eskaini zaio Bidebieta auzoari, eta bereziki bertako Haurtxokoari. Ordutegi-aldaketaren ondorioz, lehen aldian gutxitu egin zen asteburuetan koprogramaturiko jardueretara etortzen zen jende-kopurua.

# Intxaurrondo Berri Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 7 | 863 |
| Bideoa | 1 | 28 |
| Musika | 1 | 130 |
| Hitzaldiak | 2 | 50 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 6 | 327 |
| Erakusketak | 2 | 376 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 9 | 55 |
| Liburutegiko jarduerak | 19 | 204 |
| Hainbat | 1 | 210 |
| **GUZTIRA** | **48** | **2.243** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 53.521 |
| Wifi konexioak | | 788 |
| **GUZTIRA** | | **54.309** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 9 | |
| **URTEKO BISITARIAK** | | **61.814** |

2010. urtearen azkena **auzoko gizarte-etxe berria**ren lanen amaierarekin batera iritsi zaigu; gertu dago Udalari emana izateko, eta espero da kultur arloa 2011-2012 ikasturtearen hasierarako inauguratuko dela. Bitartean, Intxaurrondo Berriko guneek jardun betean jarraitu dute.

**Emakume Astea, Ibiltari Astea, Centro Extremeño-ko Kultur Astea...** dira auzoan eragina duten elkarteekin -urteetako ibilbidea duten elkarteekin - batera antolatzen diren zenbait ekimenen adibide batzuk. Ezbairik gabe, hazteko eta hobetzeko aukera berriak ekarriko ditu gune berriak. Kolektiboen erantzuna eta partehartzea oso onak izan dira, nahiz eta aurten aurrekontua murriztu zaion antolakizun bat baino gehiagori.

**Liburutegira** adin guztietako **gero eta jende gehiago etortzeak** adierazten du leku handiagoa behar dela, alde bereiziak izango dituena, gizarte etxean irekiko dena bezalakoa.

IB1eko **lantegiek** ordutegi eta gune erabilgarri guztiak hartu dituzte ia. Urtearen hasieran lauhileko ikastaroak antolatzeko apustuak emaitza onak ekarri zituen, eta horrek 2010-2011n ere bide horretatik jarraitzera bultzatu gintuen, ukitu batzuk eginda.









# Loiola Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 10 | 890 |
| Dantza | 2 | 3.000 |
| Musika | 9 | 810 |
| Hitzaldiak | 17 | 823 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 17 | 294 |
| Erakusketak | 8 | 8.615 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 56 | 1.596 |
| Liburutegiko jarduerak | 38 | 428 |
| Hainbat [8] | 5 | 1.775 |
| **GUZTIRA** | **162** | **18.231** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 29.328 |
| Wifi konexioak | | 648 |
| **GUZTIRA** | | **29.976** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 8 | |
| | | |
| **URTEKO BISITARIAK** | | **39.679** |









2010ean, azpimarratu beharra dago **antolaturiko jardueretan auzoko erakunde eta elkarteek izan duten parte-hartzea**; esate baterako, Mikologia Jardunaldietan -Perretxiko Jaiaren arrakasta handiz-, Atari Ederreko Jaiotzan, Esnatu emakume-elkartearen urteroko zikloan, Olatu Talka Jaialdian Elvisi egindako omenaldian, eta udaberri-udazkenetako euskarazko zikloetan.

Beste ziklo batzuk ere, hala nola Literaktum, Musika Sakroa eta Poltsiko Antzerkia, arrakastatsu gertatu dira; oreka handia izan da eskaintzaren eta eskariaren artean.

**Ikastaroetan, partaidetza handia** izan da, eta plaza guztiak bete dira, batez ere arte eszenikoak, autoezagutza eta osasunaren inguruko ikastaroetan.

Ibon de la Cruz-en **gaikako solasaldia** normaldu egin da partaidetza aldetik, eta batez beste 20 lagun izan dira solasaldi bakoitzean.

2010ean, omenaldia egin zaio Mikel Azpillaga margolariari, eta erakustaldi batzuk egin dira, hala nola Martuteneko presoena eta Begoña Ujia marrazkilariarena, Donostia 2016ren xedea gogoan izanik beti ere: **kolektibo ikusezinak bistaratzea.**

Topoko eta kultur etxeko bertako lanek eragina izan dute zenbait hilabetetan zentroaren ohiko martxan, baina, aldi berean, horrek kultur etxetik irtetea eta **kalean programatzea** ekarri du. Zenbait jarduera egin dira Atari-Eder, Arcelus, Latsariak plazetan, elizan eta Benartegi baserriko zelaian, eta bizitu egin dute auzoko giroa.

2010ean, **E-Donostianet**eko prestakuntza- eta nabigazio-zerbitzua gelditu egin zen, Donostiako Sustapena udal departamentuak helburuak betetzat jo zituelako.

8 Mikologia eta Gastronomiako XII. Jardunaldiak, eta haiekin lotutako ekintzak. Mendi-ibili didaktikoa. Asto gaineko ibiliak Etxarrienen zehar

# Lugaritz Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 57 | 8.958 |
| Dantza | 3 | 810 |
| Zinea | 20 | 2.585 |
| Bideoa | 9 | 1.887 |
| Musika | 17 | 4.198 |
| Hitzaldiak | 1 | 60 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 43 | 572 |
| Erakusketak | 10 | 2.474 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 142 | 2.374 |
| Merkatu zaharreko jarduerak | 1.171 | 18.424 |
| Aretoen alokairua | 23 | 2.738 |
| Liburutegiko jarduerak | 20 | 372 |
| Hainbat | 1 | 80 |
| **GUZTIRA** | **1.517** | **45.532** |

| ZERBITZUAK | | |
|---|---|---|
| erabilerak | | |
| Liburutegiko bisitariak | | 58.382 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 39 | 2.156 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 41 | 2.096 |
| Plus 55 (jarduerak) | 67 | 1.573 |
| KZgunea | | 4.996 |
| Kzgunea (IT Txartela probak) | 110 | 621 |
| Wifi konexioak | | 3.013 |
| **GUZTIRA** | **257** | **72.837** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 27 | |

| | |
|---|---|
| **URTEKO BISITARIAK** | **107.097** |












Antzerki garaikidea eta umore mamitsuko proposamenak dira oraingoz arte eszenikoen programazio sendo eta bereziaren ezaugarri. **Sexpeare, El espejo negro**, **Las Grotesqués** edo **Los Modernos** konpainiek barrez eta pentsatzen jarri gaituzte, eta **La Cuarta Pared, Los Corderos S.C.** eta **Produccions del Mar** konpainiek, berriz, eszenaratzeko beste bide batzuk erakutsi dizkigute, denek ere helburu bera zutelarik: Ikus-entzulea "ukitzea".

Txikienek gozatzeko aukera izan dute programazio askotariko eta beren adinari egokituari esker. **Vaivén**en estreinaldia, **Yllana**k ateratako algarak, **Quelli di Grock** italiar konpainiaren samurtasuna edo **GAR** konpainiak urte eta erdiko haurtxoentzat egindako saioa dira horren erakusgarri. Horrez gainera, jarraipena eman diogu kale-ikuskizunen aldeko apustuari, haurrentzako animazioa eta zirkoa barne, tartean **Trapu Zaharra** ere izan delarik, hots, dagoeneko hiritarren asaldura sortzen klasiko bihurtu den taldea.

Baina ez dugu ahaztuta utzi harrobia. Konpainia ez-profesionalen hogei emanaldi baino gehiago dira horren adierazle. Oinarriko lan horrek baditu beste esparru batzuk ere, hala nola prestakuntzarena. Berritu egin dugu eskaintza, performance-lantegia eta autore-ikastaroak sartuz, biak ere oso ematza onekin; beraz, ildo horretatik jarraitzekotan gara.

Erakusketen gunea agertzen ari diren artisten erakusleiho gisa erabili dugu: **Beñat Maiz, Xabier Xtrm** edo **Gorka Bravo**, esate baterako, dagoeneko ezagunak diren beste batzuekin batera izan dira; **Koldo Etxeberria**rekin, adibidez. Eta musikaren arloan, euskal musikaren aldeko apustuak berrikuntzari eutsi dio bereizgarri nagusi gisa. **Juan Mari Beltra**nek txalapartaren inguruan egindako muntaketa, **Joseba Tapia**k karlista eta liberalen bertso zaharrez egindako berrirakurketa, **The Sparteens**en musika-festa edo **Audience**ren soinukera berria, gehi **Barrence Withfield** eta **Petti**ren bisita dira horren erakusgarri.

Bi urtez behin **Merkatu Eguna**rekin dugun hitzordua, bestalde, gune horretan egiten den lana erakusteko baliatu dugu, eta kultura partehartzaile eta oinarrikoaren ahala berresteko. Bestetik, iragan hurbil samarrera bidaiatu dugu, Euskal Rock Radikala zer izan zen berrikusteko, **Imanol Oroituz Jardunaldietako** edizioaren bertsio gazteenean.
Ikus-entzuleek programazioari emandako erantzunak eta kulturaren alde dihardutén auzoko elkarte eta kolektiboekin izan ditugun harreman emankorrek animatzen gaituzte lan-ildo honetatik jarraitzera, autokritikari aterik itxi gabe hala ere.

# Okendo Kultur Etxea

| JARDUERAK | kop. | erabiltzaileak |
|---|---|---|
| Antzerkia | 13 | 1.703 |
| Bideoa | 24 | 2.180 |
| Musika | 10 | 1.934 |
| Hitzaldiak | 3 | 140 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 27 | 572 |
| Erakusketak | 9 | 30.497 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 85 | 1.501 |
| Aretoen alokairua | 2 | 346 |
| Liburutegiko jarduerak | 97 | 2.093 |
| Hainbat [9] | 36 | 1.842 |
| **GUZTIRA** | **306** | **42.808** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 171.271 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 148 | 4.447 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 109 | 8.121 |
| Plus 55 (jarduerak) | 68 | 4.647 |
| KZgunea | | 26.002 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 215 | 2.357 |
| Wifi konexioak | | 2.876 |
| **GUZTIRA** | **540** | **219.721** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 50 | |

**URTEKO BISITARIAK** **266.430**



Okendo Kultur Etxeak sendo jarraitzen du Groseko eta, oro har, hiri osoko erreferente izaten. **Urtetik urtera nabarmen ugalduz doa** kultur etxean antolatzen diren jardunaldietan parte hartzen duen **jende-kopurua**, eta gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu bertako zerbitzuak.

Zerbitzu integratuak -Liburutegia, KZgunea, Gaztelekua/Haurtxokoa eta Plus 55- egonkortu egin dira, eta ariera onaren adibide dira bai jendeari eskaintzen zaion arretagatik eta bai egiten dituzten jardueren arrakastagatik.



Okendo Kultur Etxeko zerbitzurik berrienei zenbait jarduera gehitu zaizkie, hala nola **Osasunaren Astea, Mendia eta Izadia zikloa, Bideo-forum alemana, Abesbatzak, Poltsiko Antzerkia, Kale Antzerkia** eta **haurrentzakoa**. Garrantzizkoa da nabarmentzea Jaialdi handien (Donostiako Zinemaldia, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Giza Eskubideen Zinemaldia) **B aldea** egitasmoaren bultzada eta garapena, maila handiko erakusketak, proiekzioak eta hitzaldiak eginez, herritarrentzat interes handikoak.

**Auzoko elkarteekiko harreman erraz eta naturala** kultur etxeko aretoen lagapenean eta auzoko jaietako lankidetza eta partaidetzan mamitu da; hainbat jarduera egin dira: musika-kontzertuak San Juan eta Santo Tomasetan, antzerki-lanak eta haurrentzako jarduerak.



Erakusketek **erreferente garrantzizkoa** eta kultur etxearen **espezialitate** nabarmena izaten jarraitzen dute. Eraikin zaharreko aretoak bultzada handia jaso du, eta jende asko hurbildu da bertara urtero errepikatzen diren lanez gozatzera: ikastaroetako partaideen lanak, bide-hezkuntza eta bertako artisten lanak. Areto nagusian, berriz, aurten maila handiko erakusketak egin dira; besteak beste, Ouka **Leele** edo **Murakami**renak, aretoak lehendik duen izen eta ospeari dagokion bezala.

9 Plus 55 hitzaldiak, Osasunaren Astea, Familiaren Astea, Done Jakue Jardunaldiak, Erromanikoa, Mendia eta Natura, Emakumeen Berdintasuna, Aranzadi, Donostia Mundu Artean, Zen, Autokonpostajea, Alternatiba, Etxerat, Cristina Enea Fundazioa.

# Liburutegi Zerbitzua

## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

| | |
|---|---|
| **Liburutegi-kopurua** | **17** |
| Populazioa[1] | 185.357 |
| Bilduma modernoko funtsak[2]. | 346.811 |
| Liburu eta liburuxkak | 277.141 |
| Braille liburuak | 54 |
| Soinu-dokumentuak | 29.732 |
| Dokumentu elektronikoak | 4.234 |
| Ikus-entzunezko dokumentuak | 30.046 |
| Musika inprimatua | 5.333 |
| Grabatuak | 186 |
| Mapak | 22 |
| Liburu elektronikoen irakurleak | 37 |
| Ordenagailu eramangarriak | 26 |
| Euskarazko funtsa | 62.094 |
| Gaztelaniazko funtsa | 242.470 |
| Beste hizkuntzetako funtsa | 42.247 |
| Altak[3] | 38.844 |
| Bajak[4] | 11.401 |
| Bildumaren hazkundea %-tan | 8,54 |
| Bildumaren berrikuntza %-tan | 11,20 |
| Bilduma historikoko funtsak | 65.000 |
| Bilduma historiko katalogatua | 55.595 |
| Mikrofilmak / mikrofitxak | 8.109 |
| | |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 291 |
| Internet / CDROM sarbide-postuak | 232 |
| Opac | 34 |
| | |
| Opac kontsultak | 601.806 |
| WEB kontsultak | 191.679 |
| Hemeroteka digitaleko kontsultak | 22.118 |
| | |
| Liburutegi Zerbitzuko bazkideak | 100.597 |
| Bazkide aktiboak[5] | 32.183 |
| 2010. urteko bazkide berriak | 5.570 |
| Haur bazkide berriak | 1.366 |
| | |
| Liburutegira egindako bisitaldiak | 1.047.379 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 3.503 |
| | |
| Maileguak | 522.388 |
| Liburuen maileguak | 329.406 |
| Soinu-dokumentuen maileguak | 37.745 |
| Dokumentu elektronikoen maileguak | 9.104 |
| Ikus-entzunezko dokumentuen maileguak | 132.169 |
| Musika inprimatuaren maileguak | 3.437 |
| Mapen maileguak | 3 |
| Liburu elektronikoen irakurleei egindako maileguak[6] | 515 |
| Ordengailu eramangarrien maileguak | 1.173 |
| Aldizkarien maileguak | 8.836 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 1.747 |
| | |
| Internet / CDROM / Wi-Fi kontsultak | 162.290 |
| Aretoan | 48.588 |
| KZ aretoetan | 93.215 |
| Wi-fi | 20.487 |

2 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako funtsak.
3 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako funtsak.
4 Ez dira sartu Amundarain Mediatekako funtsak.
5 Mailegua gutxienez behin erabili dutenak.
6 Irakurgelan egindako maileguak.









# Liburutegi Zerbitzua

## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

| | |
|---|---|
| Jarduera-kopurua: | 674 |
| Jardueretara etorritakoak | 13.394 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak | 1.062 |
| Erakusketak | 8 |

Azpimarratzekoa da 2010. urtean udal liburutegiek izan duten erabilera handia, horixe adierazten baitigute honako errendimentu-adierazleok:

- **1.047.379 bisita** gure liburutegietara (2009an baino % 4 gehiago).
- **522.388 mailegu** (2,8 mailegu biztanleko, eta 5,1 mailegu izena emandako erabiltzaile bakoitzeko). Europan, biztanleko 3-4 mailegu egiten dira.
- **1,8 dokumentu biztanleko** (Europan, 2 biztanleko)[7].
- **Erosketetan**, eraberritze-kuota % 11,20koa da; PABaren[8] arabera, horrek gure bildumaren gaurkotasuna frogatzen du, gomendaturiko balioa % 10 baita.
- **Populazioaren % 50**ek liburutegiko karneta du, eta **% 32** bazkide aktiboa da sareko liburutegiten batean.

Egin diren egitasmo batzuk nabarmenduko ditugu:

- Lau argitalpen berri: ***El Pueblo Vasco 1903-1925, Novedades, Revista azul, San Sebastián: revista anual ilustrada,*** denak ere **hemeroteka digital**eko webean eskuragai; guztira, **268.022 orrialde digitalizatuta**.
- **e-reader-en mailegua** arrakasta biribila izan da. Aitzindari izan gara Estatuan zerbitzu hau eskaintzerakoan; 34 irakurgailu ditugu hasteko, hiru modelotakoak: Papyre 6.1, I-Rex Ilyad eta Cybook Gen 3. Aieteko liburutegi berriak ere bi gailu ditu. 515 mailegu egin ditugu maiatzetik.
- **Eramangarrien** mailegu-zerbitzua sareko liburutegi guztietara hedatu da.
- Gure albiste-blogak gure liburutegietako egunez egunekoa ezagutzeko balio izan du; horren erakusgarri dira idatzi ditugun **189 post**ak eta **17.699 bisitari**ak (http://liburutegikoalbisteak.donostiakultura.com)
- Sareko **orri-markatzaile berria** argitaratu da, **Iraia Okina** ilustratzailearena. 1996an hasitako bildumaren 14.a da.
- ***Irakurtzeko uda, 2010*** bibliografia-gida argitaratu dugu, irakurle heldu zein haurrei zuzendua; **47 liburu**ko sorta hautatu da udan irakurketaz gozatzeko.
- **Festen Unitatearekin lankidetzan**, Fermin Muñoz-en San Sebastián, historia y anécdota de sus fiestas hasta 1925 liburua argitaratu da.
- Jardueren artean, **Javier Celaya** etorri izana nabarmenduko dugu: 2.0 webean espezialista eta dosdoce enpresako zuzendaria da Celaya, eta urriaren 24an etorri zen, Liburutegiaren Eguna zela eta. Haren komunikazioaren izenburua: Las bibliotecas en la era digital.
- Haur Liburutegi Nagusian, **Jorge Campanillas** abokatuak emandako ikastaroa nabarmenduko dugu: ***Biblioteca y propiedad intelectual en la era digital***; bai eta ***Bularretik mintzora*** kanpainaren hasiera ere, Galtzagorrirekin lankidetzan.
- Abenduaren 20an, **Aiete Kultur Etxeko Liburutegi berria** ireki zen; 506 m2 solairu bakarrean, haur eta helduentzako zerbitzu guztiekin. Berritasuna, RFIDren erabilera dela eta[9].










---

[7] IFLA (liburuzain-elkarteen nazioarteko federazioa).
8 Liburutegiak analizatzeko programa. Bertelsmann Fundazioa.
9 Liburutegientzako irrati-frekuentzia.

# Liburutegi Zerbitzua
## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

Ez dugu ahaztu **Sarea liburutegi-foroetan agertzea**; alegia:

- Santanderko Universidad Internacional Menéndez Pelayo-n ekainaren 17an eman zen Bibliotecas para la ciudadanía europea, la memoria del futuro ikastaroan parte hartu dugu, honako ponentzia honekin: ***La red de bibliotecas municipales de Donostia-San Sebastián, mirando al futuro.***
- Liburutegiko taldeak **hiru komunikazio** aurkeztu ditu Liburutegi Publikoen V. Kongreso Nazionalean; Gijonen egin zen, azaroaren 3, 4, eta 5ean, eta hauexek izan ziren gaiak: liburu elektronikoa, hemeroteka digitala eta liburutegi-sareko albiste-bloga.

Liburutegi-zerbitzuaren datu zehatzak honako hauek dira:

**Liburutegi Nagusia - Alderdi Eder**

| | |
|---|---|
| Funts historikoa[10] | 65.000 |
| Funtsak | 49.935 |
| Altak | 5.474 |
| Bajak[11] | 2.943 |
| Bazkide berriak | 1.489 |
| Bisitariak | 338.677 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 1.133 |
| Maileguak | 128.726 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 431 |
| Internet / CDROM kontsultak | 33.023 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 37 |
| Prentsa historikoan egindako kontsultak | 3.537 |
| Ikus-entzunezkoetan egindako kontsultak | 1.996 |
| Jarduera kopurua | 119 |
| Parte-hartzaileak | 2.690 |
| Liburuxkak, gidak… | 112 |
| Erakusketak[12] | 7 |

**Liburutegi Nagusia - Haur Saila Haur Liburuen Dokumentaziogunea**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 34.410 |
| Altak | 2.688 |
| Bajak | 761 |
| Bazkide berriak | 351 |
| Bisitariak | 40.369 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 142 |
| Maileguak | 28.390 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 100 |
| Internet / CDROM kontsultak | 5.269 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 12 |
| Jarduera kopurua | 91 |
| Parte-hartzaileak | 2.162 |
| Liburuxkak, gidak… | 41 |

**Aiete Kultur Etxeko Liburutegia[13]**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 10.753 |
| Altak | 10.753 |
| Bajak | 0 |
| Bazkide berriak | 281 |
| Bisitariak | 1.823 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 228 |
| Maileguak | 1.787 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 223 |
| Internet / CDROM kontsultak | 335 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 15 |









10 Gutxi gorabeherako kopurua. Funtsa katalogatzen ari dira. 2010. urtearen amaieran katalogaturiko funtsa: 55.595
11 Behin betiko bajak eta biltokiratzeak barne.
12 Alderdi Ederren eta Ekitaldi Aretoan (San Jeronimo kalean) egindako erakusketak.
13 2010eko abenduaren 20an ireki zen.

# Liburutegi Zerbitzua
## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

**Altza Kultur Etxeko liburutegia (Larratxo)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 12.920 |
| Altak | 1.124 |
| Bajak | 528 |
| Bazkide berriak | 89 |
| Bisitariak | 16.969 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 75 |
| Maileguak | 11.868 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 52 |
| Internet / CDROM kontsultak | 1.785 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 5 |
| Jarduera-kopurua | 26 |
| Parte-hartzaileak | 265 |
| Liburuxkak, gidak... | 35 |



**Casares-Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 27.828 |
| Altak | 2.152 |
| Bajak | 357 |
| Bazkide berriak | 315 |
| Bisitariak | 57.148 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 191 |
| Maileguak | 42.226 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 141 |
| Internet / CDROM kontsultak | 19.415 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 32 |
| Jarduera-kopurua | 39 |
| Parte-hartzaileak | 465 |
| Liburuxkak, gidak... | 117 |



**Egia Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 29.187 |
| Altak | 1.654 |
| Bajak | 630 |
| Bazkide berriak | 201 |
| Bisitariak | 51.139 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 226 |
| Maileguak | 36.213 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 160 |
| Internet / CDROM kontsultak | 12.963 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 32 |
| Jarduera-kopurua | 49 |
| Parte-hartzaileak | 699 |
| Liburuxkak, gidak... | 32 |
| Erakusketak | 1 |



**Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 32.966 |
| Altak | 2.733 |
| Bajak | 574 |
| Bazkide berriak | 865 |
| Bisitariak | 153.591 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 514 |
| Maileguak | 80.118 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 268 |
| Internet / CDROM kontsultak | 26.853 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 40 |
| Jarduera-kopurua | 85 |
| Parte-hartzaileak | 1.672 |
| Liburuxkak, gidak... | 109 |



# Liburutegi Zerbitzua
## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

**Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegi**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 24.097 |
| Altak | 1.992 |
| Bajak | 923 |
| Bazkide berriak | 172 |
| Bisitariak | 53.521 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 237 |
| Maileguak | 35.049 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 155 |
| Internet / CDROM kontsultak | 7.066 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 15 |
| Jarduera-kopurua | 19 |
| Parte-hartzaileak | 204 |
| Liburuxkak, gidak… | 55 |

**Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurrondo)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 12.090 |
| Altak | 702 |
| Bajak | 1.199 |
| Bazkide berriak | 106 |
| Bisitariak | 15.707 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 80 |
| Maileguak | 11.043 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 56 |
| Internet / CDROM kontsultak | 2.724 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 7 |
| Jarduera-kopurua | 45 |
| Parte-hartzaileak | 1.282 |
| Liburuxkak, gidak… | 35 |

**Loiola Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 25.763 |
| Altak | 1.710 |
| Bajak | 953 |
| Bazkide berriak | 159 |
| Bisitariak | 29.328 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 130 |
| Maileguak | 17.343 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 77 |
| Internet / CDROM kontsultak | 3.794 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 8 |
| Jarduera-kopurua | 38 |
| Parte-hartzaileak | 428 |
| Liburuxkak, gidak… | 22 |

**Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antigua)**

| | |
|---|---|
| Funtsak | 24.464 |
| Altak | 1.816 |
| Bajak | 1.372 |
| Bazkide berriak | 572 |
| Bisitariak | 58.382 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 258 |
| Maileguak | 30.687 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 135 |
| Internet / CDROM kontsultak | 9.498 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 28 |
| Jarduera-kopurua | 20 |
| Parte-hartzaileak | 372 |
| Liburuxkak, gidak… | 105 |








# Liburutegi Zerbitzua
## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)

### Okendo Kultur Etxea (Gros)

| | |
|---|---|
| Funtsak | 32.771 |
| Altak | 3.038 |
| Bajak | 1.025 |
| Bazkide berriak | 838 |
| Bisitariak | 171.271 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 573 |
| Maileguak | 85.491 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 286 |
| Internet / CDROM kontsultak | 35.481 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 41 |
| Jarduera-kopurua | 97 |
| Parte-hartzaileak | 2.093 |
| Liburuxkak, gidak… | 72 |



### Urgull Mendiko Liburutegia

| | |
|---|---|
| Funtsak | 4.409 |
| Altak | 220 |
| Bajak | 52 |
| Bazkide berriak | 16 |
| Bisitariak | 4.116 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 54 |
| Maileguak | 581 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 8 |
| Internet / CDROM kontsultak | 515 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 4 |
| Jarduera-kopurua | 47 |
| Parte-hartzaileak | 1.083 |
| Liburuxkak, gidak… | 2 |



### Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia

| | |
|---|---|
| Funtsak | 12.116 |
| Altak | 1.889 |
| Bajak | 84 |
| Bazkide berriak | 111 |
| Bisitariak | 46.778 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 206 |
| Maileguak | 8.984 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 40 |
| Internet / CDROM kontsultak | 2.773 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 7 |
| Liburuxkak, gidak… | 335 |



### San Telmo Museoko Liburutegia

| | |
|---|---|
| Funtsak | 10.972 |
| Altak | 755 |

### Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxeko Liburutegia

| | |
|---|---|
| Funtsak | 2.130 |
| Altak | 144 |
| Bazkide berriak | 2 |
| Bisitariak | 2.746 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 11 |
| Maileguak | 466 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 2 |
| Internet / CDROM kontsultak | 796 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 2 |

**Amondarain Mediateka. Arantzazuko Ama Ikastola**[14]

| | |
|---|---|
| Bidalitako loteak | 1 |
| Funtsak | 6.978 |
| Altak | 510 |
| Bajak | 83 |
| Bisitariak | 5.814 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 26 |
| Maileguak | 2.003 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 9 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 6 |
| Jarduera-kopurua | 5 |
| Parte-hartzaileak | 75 |





**ERAKUSKETAK**

**Alderdi Eder / San Jeronimo**

| | |
|---|---|
| Bisitariak<br>Judas Arrieta. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXI. ASTEA<br>6.546 | Urriak 30 -<br>azaroak 1 |
| Dani Fano. VII. Komiki Jardunaldiak. | Urriak 28 |
| Euskadi Fantastikoa<br>9.537 | abendua 3 |
| ATCORE VI. Argazki Lehiaketa<br><br>8.749 | Urriak 1 -<br>urriak 22 |
| Koadernaketa-ikastaroa 2009-2010<br><br>4.038 | Maiatzak 17 -<br>maiatzak 31 |
| Txetxenia. Hauts dezagun isiltasuna. Argazki-erakusketa<br>2.200 | Maiatzak 14 -<br>ekainak 17 |
| Gipuzkoa 1936-50. Kronika zuri-beltzean. Argazki-erakusketa<br>8.716 | Apirilak 15 -<br>maiatzak 13 |
| 24 orduak<br>100 | Martxoak 18 |

**Egia Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| "César y Ernestina: la colcha"<br>1.500<br>Haur Liburuaren Astea | Apirilak 12 - 30 |

14 Auzo osora irekita egon deneko datuak soilik.

# Musika

### IKUSKIZUNAK

| | KOP. | Ikus-entzuleak | Batez bestekoa |
|---|---|---|---|
| Antzoki Zaharra | 2 | 425 | 212,5 |
| Kultur Etxeak | 89 | 18.714 | 210,27 |
| Victoria Eugenia Antzokia | 37 | 18.969 | 513 |
| | | | |
| Victoria Eugenia Kluba | 20 | 2.219 | 111 |
| Kursaal Fundazioa | 21 | 16.183 | 771 |
| **Guztira** | **169** | **56.510** | **1.817,77** |

2010. urtean, **sektore pribatuarekin** iaz hasitako **elkarlana**ren ildotik jarraituz, Victoria Eugenia Antzokiaren musika-programazioak -eta, hedapenez, Donostia Kulturarenak- hobetu egin ditu sektore pribatuarekiko elkarlanak eskaintzen dituen aukerak. Lehenik, San Miguel DonostiKluba zirkuitua aipatu behar da; izan ere, Indie musikari eta bertako artistei arreta berezia eskainiz, Donostiako areto publiko eta pribatu batzuetan egindako kontzertu txiki baina interesgarri batzuk eginez (berr)ekin dio bideari.

Bestalde, musika-panoramaren beste muturrean, eta harrigarriki, **Classic zikloa** sortu da 2010. urtean, bai eta arrakasta lortu ere; ganbera-musikan zentraturiko programazioa eskaini du, eta **agertzen hasi diren bertako artista eta instrumentista handiek** hartu dute parte. Zikloak oinarri sendoa du **Asociación de Cultura Musical**en eskarmentuan eta gizarte-gorputzean, elkarte horrek ibilbide luzea baitu gure hirian musika sustatzen eta zabaltzen.

Programa berri horiekin batera, ohiko programazioak eta instituzio horren musika-arloan lehendik ezagunak diren beste programa batzuek maila altua lortu dute, hala kopuruari nola kalitateari eta askotarikoari dagokienez, eta are garrantzizkoagoa dena: horrek guztiak diru publikoan duen kostua nabarmen jaistea lortu dute.













# Antzerkia eta Dantza

| | Lanak | Emanaldiak | Ikus-entzul. | Ordu gaztea |
|---|---|---|---|---|
| **ANTZERKIA** | | | | |
| Neguko denboraldia | | | | |
| Antzerki profesionala | 20 | 47 | 18.931 | 484 |
| Haurrentzako antzerkia | 4 | 12 | 3.100 | 0 |
| Klub Aretoa | 6 | 8 | 805 | 65 |
| Antzerki amateurra | 20 | 22 | 3.230 | 0 |
| Eskolatik antzerkira | 4 | 25 | 4.539 | 0 |
| Hainbat | 4 | 4 | 320 | 0 |
| **Guztira** | **58** | **118** | **30.925** | **549** |
| **Udako denboraldia** | | | | |
| Antzerki profesionala | 13 | 81 | 26.099 | |
| **Guztira** | **13** | **81** | **26.099** | |
| **DANTZA: MUGAZ HARAINDIKO ZENTRO KOREOGRAFIKOA** | | | | |
| Dantza profesionala | 9 | 12 | 5.858 | |
| Klub Aretoa | 8 | 9 | 818 | |
| **Guztira** | **17** | **21** | **6.676** | |
| **LIRIKA** | 3 | 6 | 3.155 | |
| **Guztira** | **3** | **6** | **3.155** | |
| **MUSIKALA** | 2 | 15 | 8.822 | |
| Kursaal | 1 | 7 | 8.830 | |
| **Guztira** | **2** | **15** | **17.652** | |
| **JAIALDIAK** | | | | |
| Dferia | 15 | 27 | 3.804 | |
| Poltsiko Antzerkia Jaialdia | 16 | 16 | 887 | |
| Gazte Antzerkia | 32 | 32 | 3.064 | |
| **Guztira** | **63** | **75** | **7.755** | |
| **BESTE JARDUERA BATZUK** | | | | |
| Gaikako zikloak | | 8 | 550 | |
| Emanaldiak | | 12 | 808 | |
| Solasaldiak | | 3 | 250 | |
| **Guztira** | | **20** | **1.358** | |
| **GUZTIRA** | **156** | **336** | **93.620** | |





Europara begira jarraitzen dugu: **Béjart Ballet Laussane, Malandain Ballet Biarritz, Philippe Genty**… Gure aletxoa jarriz **2016an Donostia Europako Kultura Hiriburu** izan dadin. Izan ere, 2010ean, ikus-entzuleek, Antzerki eta Dantzaren zaleek, hirira bisitan etorritakoek, lehen mailako arte-eskaintzaz gozatzeko parada izan dute; espazio eszenikoetako ateak zabalik egon dira etengabe, ikastaroak, master class-ak eta prestakuntzarako eta ezagutza jendarteratzeko ezin konta ahala jarduera eskaintzeko. 2010ean, halaber, **musikalak** iritsi dira: *Mamma Mia!* Kursaalera, *Fiebre de sábado* noche eta *Chicago* Victoria Eugenia Antzokira. Sasibil-ek eutsi dio Lirikaren sugarrari, *La del manojo de rosas, La Gran Vía* edo *El Huésped del Sevillano* zarzuelekin. Artista handiek bisitatu dute Donostia: aktoreak, koreografoak, eszena-zuzendariak, eszenografoak, argiztatzaileak eta beste espezialista asko, denak ere arte eszenikoen familia handiko kide. **Gil Roman, Juan Carlos Santamaría, Thierry Malandain, Rodrigo Pederneiras** dantzan, eta **Helena Pimenta, Fernando Bernués, Héctor Alterio, José Sacristán, José María Pou, Amparo Larrañaga, Ara Malikian, Nuria González, Magüi Mira, Santiago Sánchez** antzerkian.

Dantzan, beste urtebetez, sendotuz jarraitu du **Malandain Ballet Biarritz- Victoria Eugenia Antzokia Mugaz Haraindiko Zentro Koreografikoak. Corpo, Béjart Ballet Lausanne, Malandain Ballet Biarritz** konpainia handien kudeaketa eta programazioa da beste egitasmo bat; dantzari gazteen prestakuntza koreografikoa osatzen du, eta herritarren artean sustatzen eta zabaltzen du dantza, **Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartea**ren lankidetza baliosa ahaztu gabe, hala Zentro Koreografikoan nola dantzarekin zerikusia duten jarduera guztietan.

Antzerkian, berriz, hiru egitasmo nabarmenduko ditugu, programazioaren ardatz nagusiak izan baitira. Lehen ardatza, **haurrei zuzendutako programazioa**; ***Eskolatik antzerkira*** eskola-antzerkiaren egitasmoa izan du osagarri, txikienen artean Arte Eszenikoak sustatzeko, ikastetxeak lankide izanik. Bigarren ardatza **euskarazko antzerkia**ren programazioa izan da, helduei zuzendua; hizkuntza-normalizazioan bere alea jarri nahi du antzerkiari dagokionez, eta, denboraldiko ikuskizunik onenari **Donostia Antzerki Saria** emanez amaitzen du urtea, Euskara Patronatuarekin batera; **martxoaren 27an** izaten da sari ematea, Munduko Antzerki Egunean. Azkenik, azpimarratzekoa antzerki-estilo eta kontzeptuen ugaritasuna, Donostia Kulturak kudeatzen duen **espazio eszenikoen sare zabalean** agerbidea izan duena. **Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena, Imanol Larzabal Aretoa** eta beste espazio batzuei esker, programazio bete, askotariko eta erakargarriaz gozatzeko aukera izan da. Eszenako bitxi batzuk nabarmentzen hasita: Gazteszenan, **Le Petit Théâtre de Pain**en *Errautsak* eta **Circus Klezmer** izan ditugu; Imanol Larzabal Aretoan, berriz, **Histrion Teatro**, Daniel Veronesek zuzendua, eta **Cuarta Pared**en *Siempre fiesta*.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi **gaikako zikloen antolakuntza,** zerbait berria izan baita. Arte eszenikoen programazioari hala gizartean nola kulturan tamaina eta entzute handiagoa emateko xedez, 2010ean gaikako ziklo multidiziplinarrak antolatzen hasi gara; eszenikoez gainera, beste diziplina batzuk ere sartu ditugu. Otras rosas rojas izeneko zikloa izan da lehena, arteak eta pentsamenduak indarkeria matxistaren kontrako borrokan egindako ekarpenei eskainitako zikloa.

# Zinea eta Bideoa

| | Egunak | Saioak | Filmak | Ikusleak |
|---|---|---|---|---|
| Nosferatu | 15 | 15 | 17 | 2574 |
| Surfilm Festibal | 7 | 17 | 64 | 3824 |
| Giza Eskubideen VIII. Zinemaldia | 8 | 30 | 43 | 8415 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astea | 12 | 35 | 64 | 13606 |
| Ziklo eta saio bereziak | 19 | 23 | 71 | 5054 |
| **GUZTIRA** | **61** | **120** | **259** | **33473** |

### ZINEAREKIN ETA BIDEOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK

Donostia Kulturaren zine-programazioan, 2010ean, Nosferatu programazio egonkorra, urtean zehar programatu ohi diren saio bereziak, zinemaldiak eta Tabakalerarekiko ohiko lankidetza sartu dira.

**Zinemaldiek** gero eta **protagonismo handiagoa** dute programazioan. **Giza Eskubideen Zinemaldiak** arrakasta handia izan du ikus-entzuleen eta kritikaren aldetik, eta handitu egin du bisitatzen gaituzten gonbidatuen kopurua: **Goran Paskaljevic (Serbia), Jose Mari Goenaga, Jon Garaño (Espainia), Juan Carlos Rulfo (Mexiko), Shai Carmeli (Israel), Philippe Van Leeuw (Belgika)** eta **Pete Travis (Irlanda)** zinegileen artean, edo **Antonio José Navarro (Dirigido**) eta **Roberto Cueto (Cahiers du Cinéma**) kritikarien artean... Zinemaldia gogoeta eta eztabaidarako gunea izan da, ezinbesteko topalekua bakearen kulturaren alde apustu egin duen hiri batean.





**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**k kalea berreskuratzea izan du ezaugarri, funtsezko tokia izaki zinemaldirako; "ikaragarrizko" kalejira egin zen, eta 5.000 lagun baino gehiago bildu ziren bertara; musika-emanaldiak, zonbien desfilea eta txirrista bat txikienentzat. Duela bi urte baino egun bat gutxiago izan eta Kursaala erabili ez arren, Asteak arrakasta handia izan du ikusle aldetik, nabarmen ugaldu baitira.

**Amstel Surfilm Festibal**ak topaleku izaten jarraitzen du kirol horren eta, oro har, itsasoaren zaleentzat.



Azpimarratzekoa, halaber, **Tabakalerarekiko** lankidetza. Batetik, elkarrekin programatzen ditugu Biarritzeko **FIPA**ko film sorta bat eta **Clermont-Ferrand**eko Zinemaldiko film labur esperimentalen **LABO** saila (osorik). Gainera, Zine Unitateak txosten bat egin du Tabakalerarentzat Euskal Herriko ikus-entzunezkoei buruz, banaketa ez-komertzialaren esparruan.

# Zine Unitatearen Argitalpenak

2010ean, **Nosferatu** liburu-bildumako **bi zenbaki** argitaratu dira. 70eko thriller estatubatuarra (Antonio José Navarrok koordinatuta) eta François Truffaut: El deseo del cine (Carlos Losillak koordinatua). Liburu horiek Antzoki Zaharrean programatzen diren film-zikloen informazio-euskarria dira.

**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**rekin batera, La Bestia en la pantalla: Aleister Crowley y el cine fantástico (Jesús Palacios-ek koordinatua) liburua argitaratu da.

Gure liburu guztiak UDL Libros-en bitartez banatzen dira Espainian.

Eta, urtero bezala, Asteak **2000 Maníacos** fanzinearen beste zenbaki bat koproduzitu du. Bai eta, modu berezian, Divinas liburua argitaratu ere, Isabel Manceboren marrazkien erakusketarekin batera.

# Festak

2010 urte bikaina izan da Festen Unitatearentzat. Unitateak aurrez jarritako xedeak betetzea lortu du, ekonomia-egoera hain zaila izan arren, herritarren partaidetza ezin hobeari esker.

Hona hemen aurtengo gertaerarik aipagarrienak:

***San Sebastián. Historia y anécdota de sus fiestas*** liburua argitaratu zen, **Fermín Muñoz Echabeguren**ek idatzia: gure hirian XX. mendearen hasieran egiten ziren jaien deskribapen xehea.

**Sardinaren ehorzketa** indarberriturik agertu zitzaigun elur-giroan, eta ihauterien jaiari amaiera ezin hobea eman zitzaion hartara.

Donostia Hiria Pop-Rock Lehiaketaren bidetik jarraituz, **Tokiko Musika Erakustaldia** antolatu zen; gogoa eta ilusioa izan ziren diru eskasiak utzitako zuloa betetzeko modua. Donostia dar-dar jarri zuten gure taldeen kanta onenek.

Irailean, ikusi genuen **Kontxako Emakume Banderaren arrakasta** hazi egin zela, eta sailkapen-sistema bera ere aldatu behar izan genuen, partaide-kopuru handira egokitu ahal izateko. Bizi izandako giroa, estropada jokatu bitartean eta ondoren, oso parte-hartzailea izan zen.

**ERREGEAK** (urtarrilak 5, astelehena)
Erregeak iristea, Kontxako hondartzan zehar gamelu gainean etorrita. Harrera Udaletxean, non haurrek gutunak emateko aukera izan baitzuten. Hiriko erdialdean zehar egindako ibilia, gamelu gainean (18:00). Rezola Gerontologikoa eta Villa Sacramento gizarte-etxeetara bisita.

| | |
|---|---|
| Taldeak: | 12 |
| Parte-hartzaileak: 500dik gora | 500 |
| Karrozak: | 4 |
| Fanfareak: | 4 |
| (Amulleta, Los Pasai, Joselontxos eta Gauerdi) | |
| Gozokiak: | 1.500 kg. |
| (egokiak zeliakoentzat ere) | |

**HAUR DANBORRADA** (urtarrilak 20, asteartea)
Urtarrilaren 19an, Haur Danborradan parte hartuko zuten Ohorezko karguen eta konpainien aurkezpen-festa egin zen **Gasca Kiroldegia**n. **Jende askok parte hartu zuen festan: 2.000 hau**r inguru izan ziren, bai eta Real Sociedadeko jokalari batzuk eta La Oreja de Van Gogh musika-taldea ere. Easo Ederra, Jenerala, Laguntzaileak, Ohorezko Damak eta Zaldizainak Ibai Ikastolakoak ziren; Danbor Nagusia, berriz, **Amara Berri Ikastola**koa.

12etan: Desfile nagusia Alderdi Ederren.

Parte-hartzaileak: 45 ikastexe, 52 konpainiarekin.
Haurrak, guztira: 5.256
Ikusleen zenbatespena: 35.000-40.000 lagun.







**HELDUEN DANBORRADA** (urtarrilak 20)
Nahi duten talde eta erakundeek parte har dezakete aisialdi-jarduera honetan, Helduen Danborraden estatutuan ezarritako gutxienezko baldintzak betez gero. 24 ordu festan, Raimundo Sarriegiren martxen doinupean.

**Bandera jasotzea** (urtarrilaren 19tik 20rako gauean)
Hasiera ematen die eguneko festa-ekitaldiei. Zenbait danborradatako 75 ordezkari, Gaztelubiderekin batera.

**24 ordu** (bandera jasotzetik jaisteraino): 107 danborrada hiriko auzoetan. % 87, gizon-emakumez osatuak. 12.611 parte-hartzaile guztira.

**Bandera jasotzea** (urtarrilaren 19tik 20rako gauean)
Unión Artesana elkarteko danborradak jo zituen Sarriegiren martxak, patroiaren eguneko ospakizunei amaiera emateko.

Urrezko Danborra: La Oreja de Van Gogh.

**KALDEREROAK** (otsailak 6)
Inauteriak iragartzen dituen jarduera. Urtero egin ohi da otsailean, Kandelaria egunaren ondorengo lehen larunbatean. Ijitotribuak Hungariatik metalezko ontzi eta lanabesak konpontzera iristen direlakoa egiten da.

Tribuak: 18
Parte-hartzaileak: 346 (% 40, emakumeak)
Konpartsak: 19, zenbait auzotan.

Kontxako barandillaren 100. urteurrena zela eta, omenaldia egin zitzaion Juan Rafael Alday Lasarte arkitektoari.

**ARTZAIAK ETA INUDEAK** (otsailaren 7an) (Antiguan, otsailaren 20an)
Auzoak: 4 (Alde Zaharra, Gros, Amara eta Antigua)

Taldeak: 4 konpartsa (Kresala, Groseko Artaiñu Artzai eta Inudeak, Antiguotarrak dantza taldea eta Ikasbide elkartea)

**INAUTERIAK** (otsailaren 11tik 15era)
Momo jainkoa: José Mª Arrieta Irizar.
Konpartsak: 26
Parte-hartzaileak: 5.300
Urrezko sardina: Sardinaren ehorzketaren lagunen kofradia.

**Sarituen zerrenda: Inauteriko Sari Nagusia: Eureka**

**Konpartsa Handiak:**
1. saria: Fama A.G.A. / Thamessis (ex aequo)
2. saria: Trumoiak
3. saria: Karmelo Txiki

**Konpartsa ertainak:**
1. saria: Tantai Loiola
2. saria: Txassis
3. saria: Santa Barbara

**Konpartsa Txikiak:**
1. saria: Alaia
2. saria: Bosko Zuhaitz
3. saria: Zuhaitzak / Show Time









**Umorearen Sari Nagusia Mundo Nuevo**

**Konpartsa Handien Karrozak:**
1. saria: Fama A.G.A.
2. saria: Karmelo Txiki / Trumoiak
3. saria: Thamessis
**Konpartsa Ertainen Karrozak:**
1. saria: Txassis
2. saria: Santa Barbara
3. saria: Tantai Loiola
**Konpartsa Txikien Karrozak:**
1. saria: Alaia
2. saria: Lagun Artea
Aipatzekoak larunbat arrats-gaueko giroa eta sardinaren ehorzketaren indarberritzea, nahiz eta hotza eta elurra egin.

**SAN JUAN BEZPERA** (ekainaren 23an) Konstituzio plaza, 19:00.
Ongi etorria udari, lizar bat errez eta inguruan dantza eginez, agur gisa. Goizaldi Dantza Taldekoek San Juan Zortzikoa dantzatu zuten. Duela 9 urte berreskuratu zen dantza hori.

**ASTE NAGUSIA** (abuztuaren 14tik 21era)
Donostiako udako jai nagusia, adin guztietako jendearentzat. Jarduera programa askotarikoa, eguraldi onaz gozatu eta gure hirian txoko berriak aurkitzeko, festa- eta jai-giroan.

Ikus-entzuleak: 913.213
Agertokiak: 9
Jarduerak: 327

**Urrezko kopa:** 1.a, Juan José López Azpilikueta (Lezaun): 32.07 minutu
**Igeldoko Harria:** 1.a, Jose Ramon Iruretagoiena (Izeta II.a): 16 altxaldi



Abuztuaren 14an, 19:00etan, "Artillero, dale fuego" oihukatzearekin batera, metxa piztu eta kanoiak danba egin zuen. 2010ean, Paseo Berriko berbenak kendu ziren, aurrekontua eta aurreko urteetan bertaratutako jendea asko gutxitu izanaren ondorioz. Kursaaleko Terrazetara jende gehiago joan zen. Bi aliatu handi izan genituen: jendearen emana eta eguraldi ona. Nabarmentzekoa, jarduera berri bat, arrakasta handia lortu zuena egun argiz: Kursaaleko Terraza Multikulturala.

**DONOSTIAKO TOKIKO MUSIKA ERAKUSTALDIA**
(martxoa - ekaina)
Erakustaldi horrek segida eman zion Pop Rock Lehiaketaren lanari eta ibilbideari. 15 talde lehiatu ziren 3 estilotan (Pop, Rock eta Beste Joera batzuk), 5 talde estilo bakoitzeko. Vctoria Eugeniako Klub aretoan, Bukowski tabernan eta FNACen izan ziren emanaldiak. Estilo bakoitzeko, bi talde hautatu ziren Donostia Kulturak programaturiko kontzertuetan abiatzaile gisa aritzeko (haietarik bi, Aste Nagusian).

Rock: Mantisa eta Krilin
Pop: 15 grados eta Edición Limitada
Beste joera batzuk: Fairlight eta Iñigo Pro & Fran C



**SU FESTEN NAZIOARTEKO 47. LEHIAKETA-JAIALDIA**
(abuztuaren 14tik 20ra)
Aste piroteknikoan, zazpi enpresak parte hartzen dute, munduko hainbat lekutatik etorriak. Argitasuna, sormena, artea eta

ikuskizuna: horra lehiaketaren edukia ezin hobeto definitzen duten hitzak. Donostiako Aste Nagusiko programan den jarduerarik jendetsuena da.
21ean, Ricasa enpresak (Valentzia) izan zuen lehiaketari azkena emateko ardura, ikuskizun piromusikalaren bidez.

Parte hartu zuten piroteknikiak: 7 (4 espainiar eta 3 atzerritar)
Ikusle-kopuruaren zenbatespena: 635.000 (80.000 lagun eguneko)

Sarituen zerrenda:
Urrezko Maskorra: Bruscella Bartolomeo & F.Lli (Italia)
Zilarrezko Maskorra: Pirotecnia Peñarroja (Castello)
Brontzezko Maskorra: Pirotecnia Valecea (Araba)

Herri-epaimahaiaren irabazlea: Pirotecnia Peñarroja (Castello)
Gazteriaren Sariaren irabazlea: Pirotecnia Peñarroja (Castello)

**EUSKAL JAIAK** (irailaren 4tik 12ra)
Gure herriko kultura, foklore eta festa- eta jai-giroko jarduaretarako astea. Herri-kirola, gastronomia, musika eta dantza izan ziren protagonista Euskal Jaietan.

| | |
|---|---|
| Jarduerak: | 31 |
| Musika-emanaldiak: | 5 |
| Dantza: | 5 |
| Antzerkia: | 1 |
| Kirola: | 6 |
| Haurrentzako jarduerak: | 4 |
| Gastronomia eta merkatuak: | 5 |
| Hainbat: | 5 |

**DONOSTIAKO ESTROPADAK**

**GIZONEZKOEN KONTXAKO BANDERA**
(irailaren 2, 5 eta 15ean)
Kantauriko talderik onenak lehiatu ziren denboraldiko estropadarik garrantzitsuena irabazten saiatzeko.
Irailaren 2an 24 traineruk parte hartu zuten sailkapen-probetan, eta Donostiarrarekin batera honako hauek sailkatu ziren:
Hondarribia Orsa
S.D.R. Astillero
S.D.R. Pedreña
Bermeo-Urdaibai-Umpro-Enegas-Avia
Kaiku Ambilamp
Orio-Amenabar
San Juan-Iberdrola

**Irabazlea: Bermeo-Urdaibai / Umpro-Enegas-Avia**

**Ikusle-kopuruaren zenbatespena: 30.000 lagun eguneko**
(horietarik, 27.871 lagunek ordaindu zuten).

**KONTXAKO III. EMAKUME BANDERA**
(irailaren 11 eta 14an)
Hirugarren urtez segidan, Kontxako Emakume Banderaren beste edizio bat izan zen. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Aurten, lehen aldiz, sailkapena erlojupekoan egin zen, traineru askok parte hartzen zutela eta.






**Parte-hartzaileak: 15 traineru**
Artabria
Astillero
Betulo Badalona
Bizkaia
Campello - Politécnico Valencia
Dogrove
Galicia Rias Baixas
Getaria Tolosa
Hondarribia
Natació Badalona
Orio
Pasaia San Juan
Torrevieja
Zumaia

**Irabazlea: Galicia – Rias Baixas**

**SANTO TOMAS FERIA** (abenduak 21)
Hasieran, baserri-giro nabarmeneko jaia izan zen, neguaren etorrerarako prestatzeko. 50eko urteetan, ospakizunerako zio hori desagertu ondoren, haurrak baserritar jantzian kaleratzen hasi ziren, antzina Konstituzio plazan ikusten ziren jantziak imitatuz. Ohitura hori indartuz joan zen, eta 90eko azken aldera helduak ere halaxe janzten hasi ziren. Bestalde, 60ko hamarraldiaren erdi aldera ikasleak txistorra postuak hasi ziren jartzen plazan, ikasketa bidaiarako dirua ateratzeko. Horiek guztiak Santo Tomas Feriako osagai bihurtu dira, eta halaxe hartzen ditugu gaur egun.

**Postuak:** 207 txistorra, taloak, gazta, eskulanak…
**Ikusleen zenbatespena:** 45.000 lagun
**Urdemea:** Filemona izenekoa, leitzarra, 360 kilo.

**Zenbait lehiaketa:**

**XV. TXISTORRA LEHIAKETA**
1. saria: Juan Carlos Pérez Alonso, Embutidos Etxekoak
Oiartzun
500 euro + txapela

**EZTI LEHIAKETA**
1. saria: Asier García
Hernani
140 euro+ txapela

**FRUTA LEHIAKETA**
1. saria: Maddi Iradi
Hernani
310 euro+ trofeoa

**BARAZKI LEHIAKETA**
1. saria: Antonia Murgiondo
Gabiria
310 euro + trofeoa



**JOSE SALABERRIA MEMORIALA**
1. saria: Antonia Murgiondo
Gabiria
300 euro + trofeoa

**ONDOEN GIROTUTAKO POSTUA**
Eman gabe
300 euro + trofeoa

**TXORIMALOAK BOULEVARDEAN**

| | |
|---|---|
| 1. saria:Ilae – Ibaetako Lagunen Auzo Elkartea | 600 euro |
| 2. saria:Axular Lizeoa – 1. txorimaloa | 400 euro |
| 3. saria:Zubiri Ikastetxea – 1. txorimaloa | 200 euro |

**OLENTZERO** (abenduak 24)
Eguberriak iristean, Olentzero menditik jaisten da ondo portatu diren haurrei opariak ekartzera. Hiriak ongi etorri Olentzerori. Jaia Loiola kalean hasi zen IPUINez IPUIN haur festarekin, Hasier, Amaia eta Ipotx Burumototz-en eskutik. Gainera, haurrek gutunak eta marrazkiak eman zizkioten Olentzerori.

Ikuskizuna: Hasier, Amaia eta Ipotx Burumototz (IPUINez IPUIN)
Taldeak: 10
Parte-hartzaileak: 600
Gozoki-banaketa: 200 kilo
Ikatz-banaketa: 50 kilo

**FESTEN UNITATEAK KUDEATURIKO JARDUERAK**

- BAIMENEN KUDEAKETA ETA/EDO AZPIEGITUREN EKARPENA

| | |
|---|---|
| **AUZOETAKO JAIAK** | |
| Jai-kop.: | 29 |
| **KALDEREROAK ZENBAIT AUZOTAN** | |
| Konpartsa-kop.: | 10 |
| **ARTZAI ETA INUDEEN KONPARTSAK** | |
| Konpartsa-kop.: | 4 |
| **KALDEREROAK ZENBAIT AUZOTAN** | |
| Kolektibo-kop.: | 25 |
| **ETXE ERREGIONALEN JAIAK** | |
| Jai-kop.: | 8 |
| **ZENBAIT KOLEKTIBO** | **47** |





**SENIDETZEAK**
Gaur egun, Donostia 6 hirirekin dago senidetuta: Wiesbaden (Alemania), Trento (Italia), Plymouth (Britainia Handia), Marugame (Japonia), Reno (AEB) eta Daira de Bojador (Saharar Errepublika).
2010ean, ekintza hauek egin dira:

**MARUGAME**
-Garaikurren trukea: garaikurrak bidali ziren beisbol eta saskibaloiko lehiaketetarako, eta garaikurrak jaso ziren hondartzako futbol-txapelketarako.
-Donostiako Bonsai Klubeko bi lagunek teknika berriak ikasteko xedez Japoniara egindako bidaiaren kudeaketa eta diruz laguntzea.

**WIESBADEN**
-Alemaniako hiri hartako alkatearen bisita **urtarrilean**, San Sebastian jaia ezagutzeko. Bisita hartan sortu zen hemengo danborrada bat 2011n Wiesbadengo ihauterietara joateko ideia.
-Integrative Reise-ko aurtengo partaideen bisita **abuztuaren 21etik 26ra**.
-Txakoli Azoka egin zen Wiesbadenen irailean.
-Donostia-Wiesbaden Eskolarteko Kirol Topaketak egin ziren Donostian **urriaren 23tik 30era**; kirol-norgehiagokek eta txangoek osatu zituzten. San Alberto Magno ikastetxeko ikasleek beren etxeetan hartu zituzten Wiesbadengo ikasleak.

# Heineken Jazzaldia

Heineken Jazzaldiaren 45. edizioa **2010eko uztailaren 21etik 25era** bitartean egin zen, eta azken urteetakoen artean onenetarikoa izan omen da: aspaldian ez zen ezagutzen hainbeste itxaropen sortzea aldez aurretik, eta hain balioespen altuak egitea. **"Inoiz izan den Jazzaldirik onena"**, batzuek ziotenez…

Praktikan, euria izan genuen lagun edizio honetan, eta doako zenbait kontzertutan, jendetza handia bilduko zutela uste bazen ere, ez zen hainbeste ikus-entzule izan. Hala eta guztiz ere, **ordaindutako sarrerak agortu egin ziren** ia emankizun guztietan. Patti Smith, George Benson eta Elvis Costelloren kontzertuak luzaroan geratuko dira askoren gogoan, Jazzaldiko nabarmenenen pare.

**Kontzertu sekretuen** ekimenak antolatzaileen eta ikus-entzuleen arteko harreman bide berri bati eman zion hasiera, eta gauza asko egiteko aukera ematen du etorkizunean. Orobat, **NautiCool esparru berria,** Nautikoko terrazan, berehala onartu eta bere egin zuten ikus-entzule, pasetzaile eta, oro har, herritarrek, hiriak musika zuzenean entzuteko dituen leku lasaigarrienetako bat izaki.

**Ekitaldiak guztira: 84**
**Ikus-entzuleak guztira: 113.507**
**Ikus-entzuleak, batez beste, ekitaldiko: 1.385**











# Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea

Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen XXI. edizioa urriaren 30etik azaroaren 5era egin zen. **33.357 ikusle**k parte hartu zuten, hala zine proiekzioetan (13.508) nola programa osatzen zuten jarduera paralelo guztietan (19.849): Komikiaren VII. Jardunaldiak, erakusketak, antzerkia, musika, mahai-jokoak, eta abar. ***Black Death*** britainiar filmak irabazi zuen **Ikusleen Saria**, programazioan genero horretan urtean egin ziren titulu nabarmenenetako batzuk bazeuden ere, hala nola ***Monsters*** eta ***The Last Exorcism*** estatubatuarrak, ***Rare Exports*** finlandiarra, Captifs frantziarra, Dream Home japoniarra edo ***Vampires*** belgikarra, besteak beste. Aurten, Animazioko **Film Luze Onenarentzako** Ikusleen Saria eman da lehen aldiz, eta ***Boogie, el aceitoso*** film argentinarrak irabazi du. Urtero bezala, Astea multidiziplinarra izan da: Erakusketak, Komiki Jardunaldiak, kalejira "munstrotsua" inaugurazio-egunean, Donostiako lehen "martxa zonbia", kontzertua eta emanaldiak hiriko kaleetan **Judas Arrieta** eta **Ninja Pastori**ren eskutik, Txipiron erraldoiaren bisita… Beste 7 egun zinez, fantasiaz, beldurrez eta dibertimenduz beteak.















# Giza Eskubideen Zinemaldia

Giza Eskubideen VIII. Zinemaldia 2010eko **apirilaren 23tik 30era** egin zen, Victoria Eugenia Antzokian (egoitza nagusia) eta hiriko beste zenbait gunetan. **22.211 ikuslek** parte hartu zuten, hala zine-proiekzioetan (8.415) nola programa osatzen zuten jarduera paralelo guztietan (13.566): 8 erakusketa, amaiera-kontzertua, hitzaldiak…, horiek osatu dute aurten Zinemaldiaren programazioa. **Goran Paskaljevic** zinegile serbiarrak jaso zuen Zinemaldiko **Giza Eskubideen Saria**. Zinemaldian zehar, era guztietako gaiak ukitu ziren, munduan gertatzen diren giza eskubideen urraketekin zerikusia zutenak denak ere: gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea, emigrazioa, presoen eskubideak, herri sahararraren eta kurduaren arazoak, genozidioak, palestinarren eta israeldarren arteko gatazka, xenofobia, emakumeen hilketak Ciudad Juárez, Afrika eta Latinoamerikan: besteak beste, horiek izan dira filmak proiektatu ondoren egindako solasaldi eta eztabaidetako gai batzuk; filmen artean, berriz, ***Los que se quedan, 80 egunean, El problema. Mary and Max*** (Ikusleek Film Onenari emandako Sariaren irabazlea), ***Testimonio del pueblo saharaui*** (Film Onenari lehen aldiz emandako Aministia Internacional Sariaren irabazlea), ***Endgame, El día que Dios se fue de viaje*** edo ***Bil'in, My Love***, besteak beste. B aldea programaren bitartez, Zinemaldiko proiekzioak izan ziren Okendo Kultur Etxean ere.










# dFERIA

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **ARETO-IKUSKIZUNAK** | | | |
| Victoria Eugenia | 3 | 3 | 1.618 |
| Victoria Eugenia Club | 2 | 3 | 245 |
| Antzoki Zaharra | 3 | 3 | 670 |
| Gazteszena (Egia) | 3 | 3 | 612 |
| Imanol Larzabal (Lugaritz) | 3 | 3 | 515 |
| Topagunea | 1 | 12 | 144 |
| **GUZTIRA** | **15** | **27** | **3.804** |
| **JARDUERA OSAGARRIAK** | | | |
| Sareako asanblada | | | 58 |
| Esquina Norte: bilera | | | 10 |
| Itinerarte: bilera | | | 8 |
| Eskenako asanblada | | | 25 |
| Eskenako bilera | | | 10 |
| Gustavo Zajac: dantza-ikastaroa | | | 25 |
| Gustavo Zajac: erakustaldi koreografikoa Clubean | | 120 | |
| Profesionalen topagunea | | | 316 |
| **GUZTIRA** | | | **572** |
| **SEKTOREKO PROFESIONALAK** | | | |
| Programatzaileak | | | 81 |
| Banatzaileak | | | 11 |
| Komunikabideak | | | 21 |
| Konpainiak | | | 49 |
| Cofae-Feriak | | | 4 |
| Hainbat | | | 6 |
| **GUZTIRA** | | | **172** |
| **GUZTIRA** | **15** | **27** | **4.548** |










2010ean, dFERIAk iraun duen hiru egunetan, **15 ikuskizun (16 funtzio) programatu dira** hiriko agertokietan. dFERIA, Donostiako Arte Eszenikoen Feria, **antzerki eta dantzaren euskal topaleku** bihurtu da hamaseigarren edizioan, eta hemendik aurrera gogoeta- eta egokitzapen-aro bati eman dio hasiera, egitasmo berri bat sendotzeko xedez, orain artekoari segida eta sendotasuna emango dion egitasmoa. dFERIA bere burua berrasmatzen ari da.

**172 profesional** etorri dira akreditatuta: programatzaile, banatzaile, ekoizle eta kazetariak. Aurrez egindako kalkuluak gainditut, uste zena baino **% 72** ekoizle eta banatzaile gehiago etorri dira.

**Ikus-entzuleak** ere nabarmen ugaritu dira aretoetan, % 40 inguru aurreko edizioarekin erkatuta, eta **% 68** jarleku baino gehiago bete dira. **4.000 lagun baino gehiago**k parte hartu dute ferian. Gazteszena izan da ikus-entzule gehien erakarri duen espazioa, **% 77** jarleku; Victoria Eugenia Antzokiak, berriz, **% 61** jarleku bete ditu. Goibel, La sonrisa ganadora eta Maniátic@s ikuskizunek areto osoa bete zuten, eta Kapzuloa proposamen eraberritzaileak, berriz, 12 emanaldi izan zituen, 144 ikusle guztira. Ikuskizun handien artean, La mujer justak eta Magifiquek **% 65** jarleku baino gehiago bete zituzten.

**Jarduera paraleloak** soilik feriako akreditatuentzat izan dira edizio honetan, eta **572 lagun**ek hartu dute parte. Sarea eta Eskenaren batzarrak egin dira, Esquina Norteko antzoki publikoen bilera, IntinerArteri buruzko bilera hurrengo edizioaren helburuak finkatzeko, eta Gustavo Zajac-en koreografia-ikastaroa, Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak dFERIArekin batera antolatua.

Programazioari dagokionez, nabarmentzeko berritasuna da **ikuskizunen % 40** era bateko edo besteko **estreinaldiak izan direla**: Golden Apple Quartet-en Goibel, Organik-en *Maniac@s* eta Ertzaren *Urrunetik ametsetan* lanek erabateko estreinaldia izan dute; *La sonrisa ganadorak*, berriz, Espainiako estreinaldia; eta Hikaren *El viaje de mi padre* eta Tanttakaren *La mujer justa* lanek, gaztelaniazko estreinaldia. Horrek agerian uzten du konpainiek dFERIAren aldeko apustua eginez jarraitzen dutela, beren ikuskizunak estreinatzeko erakusleiho egokia delakoan.

Oreka handia izan da dantzaren eta antzerkiaren artean (% 47 eta % 53, hurrenez hurren), Feriak bi arte-adierazpideok indar berberaz bultzatzen dituen seinale.

Azken batean, Euskadiko arte eszenikoen **sektorea inplikatzea** lortu izanaren atseginez itxi dugu dFERIAren 2010eko edizioa. Hausnartuz, ibilian-ibilian…

Etorkizunari begira, antzerki eta dantzako enpresek, Eskenak eta dFERIAn parte hartzen duten administrazioek osatutako lantaldeak egitasmo berri bat aurreratu du; dFERIAren hurrengo edizioan hartuko du behin betiko itxura, 2011n.

Gure esker ona adierazi beharrean gara azken urteotan dFERIA babestu eta babesten duten instituzioen lankidetzagatik; hala nola INAEM, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa. Baita El Diario Vasco eta SGAEren lankidetza berezia ere; baina, batez ere, aintzat hartzen dugu, oro har, antzerki eta dantzako euskal konpainien inplikazioa, eta bereziki Eskena Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuena.





# Literaktum

Literaktum **2010eko maiatzaren 25etik 29ra** egin zen. Ediziorako aukeratutako goiburua **"Donostia-San Sebastián: hitzen hiria"** izan zen; bat dator guztiz Donostia 2016ren gaiardatzarekin, hitzaren eta hizkuntzen festa izan nahi baitu, eta urtero Europako kulturei irekitako jaialdia.

Literaktum errealitateari ondo erantsitako edizioa izan da. Krisi-giro honetan, non kulturak aldaketa aldia bizi baitu eta are gehiago merkaturatzeko arriskuan baita, **gogoeta, ikasketa, eztabaida eta pentsamendu kritikorako gunea** proposatzen ditugu.

Programa maiatzaren 25ean hasi zen, astearteakerin, Okendo Kultur Etxean, **Juan Madrid idazlea**ren hitzaldiarekin: ***Manifiesto para una literatura útil.*** Idazleak gainbegiratua egin zion eleberri beltzaren sailean ibilitako bide luzeari: 1980an lehen lana -*Un beso de amigo*- argitaratu zuenetik, zine eta telebistako gidoilari, dokumentalgile eta are film bateko zuzendari izan baita *(Tánger)*. Eleberri beltzen egile nagusietako bat jotzen dute Madrid; literaturak historian zehar izan duen baliagarritasuna azaldu zuen, hasi orain dela milaka urteko Txinatik eta gaur egun mundu digitalak eskaintzen dituen errealitate eta aukera berrietaraino.

Asteazkenean, hilak 26, Ernest Lluch-eko jardunaldiak **Decrecimiento. El mundo.** (Otras) instrucciones de uso izan zuen izenburu. **Johan van der Keuken**en I love Dollars filma eman zen, mahai-inguruari bide egiteko, non gonbidatu nagusia **Nicolas Ridoux** izan baitzen, Desazkundearen aldeko mugimenduaren hedatzailea. Desazkundearen aldeko mugimendua pentsamendu politiko, ekonomiko eta sozialaren korronte bat da, ekonomia-ekoizpena modu erregular kontrolatuan urritzearen aldekoa, zertarako eta gizakiaren eta naturaren artean oreka-harreman berriak ezartzeko, baina baita gizakien beren artean ere. Ridoux-ek liburu didaktiko bat du idatzia, *Décroissance pour tous* (2009), bai eta *Menos es más*. Introducción a la filosofía del decrecimiento ere. Andres Neuman izan zuen solaskide, eta elkarrizketan mugimenduaren aldeko eta kontrako arrazoiak jarri ziren mahai gainean.

Ostegunean, hilak 27, **Andrés Neuman**ek berak hitz egin zuen Casares-Tomasenen **Literatura y realidad en América Latina** gaiaz. Alfaguara sariaren sustapen-bidaiaz baliatuta -*El viajero del siglo* eleberriarekin irabazi zuen-, Neumanek Hego Amerikako hiriburu guztiei pasada ematen dien liburu bat idatzi zuen: *Cómo viajar sin ver*. Eta, hain zuzen ere, bidaia jostagarri bat proposatu zigun hitzaldian, pasadizo ugari kontatuz, jostagarriak eta hain errealitate desberdinen adierazgarriak, aldi berean.

Ostiralean, hilak 28, **Beñat Achiary, Philippe De Ezkurra** eta **Pierre Vissle**rek ikus-entzuleak harritu zituzten Lugaritz Kultur Etxean ***Sormen performance*** proposamenarekin. **Gabrielle Duplantier** argazkilariaren irudiak proiektatuz, eta Pierre Vissler-e hartarakoxe sortutako ingurune elektroakustikoan, Beñat Achiary kantari eta perkusiojoleak eta Philippe De Ezkurra akordeoilariak beren *performancea* egin zuten. Gabrielle Duplantier eta Bernardo Atxagaren *Ikuspegi goxuak* lana erakusgai dago Lugaritzen, eta lan horren interpretazio garaikide bat eskaini zuten.

Azkenik, larunbatean, **Benartegi baserri**ko zelaia izan zen agertokia, **Loiola**n, Poesia ***Urumea bazterrean*** saioaren beste edizio batean. Aurten, *Pintxos&Blogsekiko* lankidetza izan da berritasuna, piknik bat antolatu baitzen haiekin poesia-emanaldiaren aurretik. Eguraldi esker, jende ugari hurbildu zen, eta arratsaldeko seietan etorritakoarekin egin zuen bat, **Lara López, José F. A. Oliver** eta **Itxaro Borda**ren bertsoak entzuteko. Guztia **Rafael Berrio**ren musika barrenkoiaz lagundurik, berak eman baitzion amaiera edizioari. Urrats bat gehiago Literaktum pentsamendurako topagune bat bilatzen dutenen erreferentzia-gune gisa sendotzeko bidean.

literaktum

letren eta lengoaien festa | festival de letras y lenguajes | festival of letters and languages








# San Miguel Donostikluba Zirkuitua

Ideia nagusia, lehendiko izen bera erabiliz zirkuitu berri bat sortu eta hedatzeari ekiterakoan, hirian sortzen den **musika-jarduera guztia bistarazi eta nabarmentzea** da, batez ere formatu txiki eta ertainekoa, gazte-jendeari eta ezaugarri alternatibokoenari zuzendua.

Asmoa musikaren arloan lan egiten duten **sortzaileak dinamizatu, babestu eta sustatzea** da, eta kultura-sentiberatasuna duen ikus-entzuleria sortzea txikitik, egunerokotik eta erreal denetik abiatuta. Erakustea Donostian, antolakizun eta jaialdi handiekin batera, badela kultura-oinarri erreal bat, arte-jardueren mapa bat marrazteko bidea ematen duena, eta sortzaileak, teknikariak, profesionalak eta, oro har, herritarrak biltzen dituena. Xedea **belaunaldi berrietan gune publiko berriak sortzeko** oinarriak ereitea litzateke, kontuan izanik 20 eta 35 urte arteko gazteek Donostiako biztanleriaren % 20 osatzen dutela; datu interesgarria, horixe baita zirkuituak izan dezakeen ikus-entzuleria eta arte-aukerak ematen dituen populazio-atala.

San Miguel Donostiklubak hiriko **12 klub** biltzen ditu ekimen horretan, musika-programazioan erreferente direnak. Donostia hiri aktiboa da kultur eskaintzaren aldetik, eta musikarenetik bereziki, talde asko baitaude, non jo eta non agertu leku bila dabiltzanak. Lehen fase honetan ditugun espazio gehienek musika-programazio finkatua dute; horri udal ekimen publikotik aldioro herritarrei aurkezten zaien musika-eskaintza gehituko litzaioke.

Egitasmoak marka komertzial baten babesa du, ekimen publikoa eta pribatua elkartzeko filosofiaren bidetik betiere, hartara **baliabideen kudeaketa hobetu** eta hiriko **musika-eskaintza bateratu**ko delakoan. Zirkuitua erreferentzia bihurtu nahi dugu Estatuan, musika independenteari dagokionez.

Programazioa udazkenean abiatu zen, eta **20 kontzertu** inguru eskaini ziren areto publiko eta klub pribatuetan; **4.500 lagun** izan ziren ikus-entzule, eta horrek erakusten du proposamenaren arrakasta. Datuak nahikoa adierazgarri dira, eta bistan jartzen dute bai **jendearen harrera** bai **kontzertuen kalitatea.**

Proposamenei dagokienez, nabarmentzekoa, besteak, beste, **Coque Malla**rena; berak eman zion hasiera Zirkuituari, Doka klubean. Udazkenean, besteak beste, **Telekinesis, Atom Rhumba, The Depreciation Guild, Andre Williams, Centro-matic, The Pains Of Pure Being At Heart, Lori Meyers, Tallest Man On Earth** pasatu ziren.

Hala, bada, espero dugu orain artekoa hurrengo edizioetan garatu eta gorpuztuko den egitasmo baten hasiera besterik ez izatea, eta musika-panorama hobetuz eta sendotuz joango dela sortzaileen, bultzatzaileen eta Donostiako musika-munduarekin zerikusia duten eragile guztien aldetik.



# Amstel Surfilm Festibal

Amstel Surfilm Festibal-en zortzigarren edizioa **2010eko ekainaren 9tik 13ra** egin zen, Antzoki Zaharrean, huraxe baita jaialdiaren egoitza ofiziala, eta beste gune batzuetan. Munduan den surf-zinemaldi zaharrena da, eta, hainbat gauza biltzen ditu: surfeko filmak, ingurumenari buruzko jarduerak, argazki- eta arte-erakusketak, *performanceak*, musika-emanaldiak (jaialdi paraleloa osatzen dute, Surfilm Festibaila), film laburren lehiaketak, hondartzako jarduerak… Zortzigarren edizioan, urtean genero honetan egindako filmik garrantzitsuenak eman ziren: **The Ultimate Wave Tahiti** (3D), **The Cove, Castles in the Sky, Keep Surfing, Idiosyncrasies, Sea of Darkness**… Eta surfari buruzko zineko zuzendari ospetsuenek bisitatu zuten Donostia, hala nola Chris Malloy, Taylor Steele, Patrick Trefz edo Michael Oblowitz-ek, besteak beste.



# hemen gaude
# estamos aquí

**A. DONOSTIA KULTURA**
Harrera - Zuzendaritza
Recepción - Dirección
Reina Regente, 8 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**B. DONOSTIA KULTURA**
Bulegoak - Oficinas
Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**C. Aiete**
Aiete pasealekua, 63
Tel.: 943 481920 • aietekulturetxea@donostia.org

**D. Casares - Tomasene**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

**E. Ernest Lluch**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919 • amara@donostia.org

**F. Larratxo**
Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

**G. Larrotxene**
Intxaurrondo kalea, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

**H. Intxaurrondo Berri**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

**I. Loiola**
Aralar kalea, 17
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

**J. Lugaritz**
Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

**K. Okendo**
Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

**L. Egia**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

**M. Liburutegi Nagusia**
**Biblioteca Central**
Alderdi Eder, z/g • Tel.: 943 481488
liburutegia_alderdieder@donostia.org

**N. Liburutegi Nagusia,**
**Haur Saila.**
**Biblioteca Central,**
**Sección Infantil.**
Fermín Calbetón, 25 • Tel.: 943 481999
haurliburutegia@donostia.org

**O. Antzoki Zaharra**
**Teatro Principal**
Kale Nagusia / Calle Mayor, 3
Tel.: 943 481970 • taquilla@donostia.org

**P. Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinako Errepublika,1
Tel.: 943 481160 • victoria_eugenia@donostia.org

**Q. San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza, 1
Behin behineko bulegoak / Oficinas provisionales:
Andereño Elbira Zipitria, 1
Tel.: 943 481580 • santelmo@donostia.org

**R. Historiaren Etxea**
**Casa de la Historia**
Motako Gaztelua / Castillo de la Mota, Urgull
Tel.: 943 428417 • santelmo@donostia.org




donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016